

# Hezkuntza Komunitateak Pribatutasunaz eta IKTei buruz duen pertzepzioari buruzko Azterketa Kualitatiboa



*2013ko abenduaren 19a*



**Datuak Babesteko**  
Euskal Bulegoa  
Agencia Vasca de  
Protección de Datos



**Kualitate**  
LANTALDEA

**Agencia Vasca de Protección de Datos - Datuak Babesteko Euskal Bulegoa**  
Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71-3. solairua  
01008 – VITORIA-GASTEIZ  
[avpd@avpd.es](mailto:avpd@avpd.es)  
[www.avpd.es](http://www.avpd.es)

**Hezkuntza Komunitateak Pribatutasunaz eta**  
**IKTei buruz duen pertzepzioari buruzko Azterketa Kualitatiboa**  
ISBN: nnnn-nnnn

**L.G.: VI 13-2014**



**Lan hau Creative Commons da**  
**\_Aitorpena (by)**

**Aske zara:**  
lan hau kopiatu, banatu eta jendaurrean hedatzeko  
Bernahasteko - lana egokitzeko  
lan hau merkataritza xedeetarako erabiltzeko

**Baldintza hauetan:**  
Aitortu - Lanaren kredituak aitortu behar dituzu, egileak edo baimendunak  
zehaztutako eran (baina ez aditzera eman ez haien babesaren dutilen edo haiek  
obraren erabilera hori babesten dutenik).  
**Informazio gehiago:** <http://creativecommons.org/licenses/by/3.0/es/legalcode.es>



# Aukibidea

Testuingurua	3
Fitxa teknikoa	5
1.- Lehen hezkuntzako seigarren mailako eta bigarren hezkuntzako lehenengo mailako ikasleek ikastetxetik kanpo nola erabiltzen dituzten teknologia berriak.	15
2.- LHko seigarren mailako eta DBHko lehenengo mailako ikasleen jarrera pribatutasuna eta datu pertsonalen babesaren aurrean, IKTen erabileraren testuinguruan.	30
3.- Gurasoak zenbateraino dauden arduratuta seme-alaben pribatutasunaz eta datu pertsonalen babesaz, IKTen erabileraren testuinguruan.	42
4.- Ikastetxeen jarduerak ikasleen pribatutasuna eta datu pertsonalak babesteko.	51
5.- LHko seigarren mailako eta DBHko lehenengo mailako irakasleen rola ikasleen pribatutasunaren eta datu pertsonalak babestearen aurrean, IKTen erabileraren testuinguruan.	64
6.- Hezkuntza komunitatearen eskariak Datuak Babesteko Euskal Bulegoari.	82
7.- Azken oharrak.	89



**Datuak Babesteko**  
Euskal Bulegoa  
Agencia Vasca de  
**Protección de Datos**

Hezkuntza Komunitateak Pribatutasunaz eta IKTei  
buruz duen pertzepzioari buruzko Azterketa  
Kualitatiboa



**Kualitate**  
LANTALDEA

# Testuingurua

---





## Testuingurua

Internetera konektatzen diren gailuak eta gailuon erabilera izugarri ugaltu denez, azken urteotan **gazteek sare sozialak eta Internet erabiltzeko moduak sortzen duen kezka ere asko hasi da.**

Kezkaren isla da **10 eta 18 urte bitarteko haur eta gazteei berariaz zuzendutako material piloa garatu eta argitaratu izan dela, Internet eta teknologia erantzukizunez erabil dezaten sentsibilizatzeko.** Material horietako asko multimedia formatuan ere egin dira, publikoarengan eragin handiago izateko.

Egun zera ari da gertatzen: **berez gazteena den ardura gurasoengana eta irakasle edo hezitzaileengana ari dela aldatzen.** Kontuan hartu behar dugu Europan egin diren azken ikerketen arabera, gazteek arlo honetako aholkularitza botatzen dutela faltan guraso eta irakasleengandik.

Hori guzti hori kontuan hartuta, **Datuak Babesteko Euskal Bulegoak eskatu dio Kualitate Lantaldea enpresari ikerketa kualitatibo bat egiteko, Hezkuntza Komunitateak IKTei buruzko duen pertzepzioa aztertzeko.**



Azterlanaren ezaugarri bat da **ikastetxeak izan direla azterketaren gunea, zehatzago esanda, lehen hezkuntzako 6. mailako ikasleak eta bigarren hezkuntzako 1. mailako ikasleak.**



**Datuak Babesteko**  
Euskal Bulegoa  
Agencia Vasca de  
**Protección de Datos**

Hezkuntza Komunitateak Pribatutasunaz eta IKTei  
buruz duen pertzepzioari buruzko Azterketa  
Kualitatiboa



**Kualitate**  
LANTALDEA

# Fitxa teknikoa

---

**Azterlanaren helburu nagusiak**

**Erabilitako metodologia**





## Azterlanaren helburuak

Zehazki, proiektu honek honako **helburu orokorra du**:



**Aztertzea hezkuntza komunitateak zer dakien eta zein pertzepzio duen pribatutasunaz eta IKTei buruz; hori jakinda, hezkuntza komunitateak duen lehen hezkuntzako 6. mailako ikasleen eta bigarren hezkuntzako 1. mailako ikasleen "hezitzaile-aholkulari" eginkizuna indartzeko neurriak inplementatu ahal izateko Datuak Babesteko Euskal Bulegoak.**

Helburu nagusi orokor horrek **4 helburu operatibo ditu**. Hona helburuak xehatuta:

- 1. Ikasleak eta IKTak:** Ikasleek teknologia berriak nola erabiltzen dituzten hausnartzea, ikusteko nola erabiltzen dituzten eskolako testuingurutik kanpo eta ikusteko zein jarrera duten pribatutasunari eta datu pertsonalen babesari dagokienez.
  - ✓ Ikasleka direla eta...
  - ✓ Zein harreman dute ikasleek IKTekin eskolako testuingurutik kanpo daudenean?
  - ✓ Zein da halakoetan teknologia berrien helburua? zertarako erabiltzen dituzte?
  - ✓ Zenbaterainoko garrantzia ematen diote pribatutasunari eta datu babesari?
  - ✓ Kolektibo horrengan ospe kontu bat da gai hau? zenbateraino ardura die gaiak? arriskurik ikusten diote? prebentzio neurririk hartzen dute? zein argudio darabilte horri buruz?



## Azterlanaren helburuak

- ✓ Gurasoak direla eta..
- ✓ Zer dakite IKTei eta sare sozialei buruz? erabiltzen dituzte?
- ✓ Gurasoen ustez, seme-alaben pribatutasuna eta datu pertsonalen babesa garrantzi handiko gaia da? gai horrek kezkatzen ditu? zergatik?
- ✓ Kontuan hartuta seme-alaben hezitzaileak direla, gai horiek direla eta, zerbait egiten dute?
- ✓ Eragozpenak dituzte seme-alabei aholku hobeak emateko? zein dira eragozpenak?

### 2. Ikastetxeetako datu babesari buruzko politika: Jakitea zein den ikastetxeen jarrera pribatutasunarekiko eta teknologia berriekiko.

- ✓ Kontuan hartzen badugu pribatutasuna eta datu pertsonalen babesa euskal curriculumean jasota daudela (Herritartasunerako Hezkuntza), zein da ikastetxeen politika IKTei eta ikasleen pribatutasunari dagokienez?
- ✓ Pribatutasunarekin eta IKTen erabilerarekin lotutako arazoak gertatzen dira? zein motatakoak? nola kudeatzen dituzte?
- ✓ Zenbaterainoko begirunea diote ikastetxeetan adin txikikoen pribatutasunari? ikastetxeetan gai honi buruzko kezkarik ikusten da? informaziorik eskatzen dute? nori?





## Azterlanaren helburuak

3. Irakasleak "hezitzaile-aholkulari" lanetan: Irakasleek pribatutasunari eta datu babesari buruz zer dakiten eta horiekiko duten jarrera aztertzea.

- ✓Zenbateraino daude sartuta eta zenbat erabiltzen dir IKTak gelan? zein IKT sartu dira eta zein hezkuntza helburu dute?
- ✓Zein dira indar handiena duten motibazioak IKTak gelan sartzeko?
- ✓Kanpoko zein tresna erabiltzen dira gelan, ikastetxeek eskaintzen dituztenez gain? zergatik?
- ✓Nola baloratzen dute irakasleek IKTak geletan sartu izana?
- ✓Zenbateraino da garrantzitsua irakasleentzat ikasleen pribatutasuna zaintzea eta ikasleen datu pertsonalak babestea eskolako testuinguruan? zergatik?
- ✓Ba al dute ikasleak sentsibilizatzeko baliabide didaktikorik? erabiltzen dituzte Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren material didaktikoak? eta bestelako materialik?
- ✓Irakasleek zein uste dute dela beraien eginkizuna? zein elementutan agertzen da, hain zuzen ere, eginkizuna?
- ✓Zein zailtasun dituzte irakasleek eginkizun hori behar bezala gauzatzeko?, zer behar dute haien lana hobeto burutu ahal izateko?



## Azterlanaren helburuak

4. **Zer eskatzen diote Datuak Babesteko Euskal Bulegoari?** Zehaztu zein elementu zehatz diren DBEBk eskaini ahal dizkietenak beraien eginkizuna hobeto burutzeko.

- ✓ Zer eskatzen diote Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, lehen hezkuntzako 6. mailako eta bigarren hezkuntzako 1. mailako ikasleen pribatutasuna eta datu pertsonalen babesari dagokionez?
- ✓ Zein uste dute izan behar direla lehentasunak?
- ✓ Nola lagun diezaieke ikastetxeei pribatutasunaren eta datu pertsonalen babesaren arloan aurrera egiteko?





## Erabilitako metodologia

Azterlana burutzeko, **izaera kualitatiboko 2 ikerketa teknika erabili dira.**

- ✓ Bata da **Elkarrizketa Ireki Sakona**. Ikerketa Teknika erabiliena da banakako gogoeta sakona eskatzen duten pertsonen bizipenekin lotutako gaiari buruz iritzi-liderrek, adituek, profesionalen kolektiboek eta abarrek duten iritzia biltzeko.
- ✓ Bestea da **Talde Dinamika edo Focus Group** delakoa. Izaera kualitatiboa duen ikerketa teknika honek diskurtsoetan sakontzeko aukera ematen du, errealitatea deskodetzeko eta interpretatzeko esanahi-markoak aztertuz eta era askotako gaien eta auzien aurrean posizio bat edo beste hartzeko erabilitako argudio-gakoak eskainiz.

Talde dinamiketan gizarte-profil jakin bateko pertsonak batzen dira, eta baldintza egokiak sortzen dira pertsona horiek aztergaiei buruzko azaleko nahi sakoneko jarrerak, pertzepzioak eta argudioak adieraz ditzaten. Hauxe da gizarte-ikerketarako erreferentzia teknika, eta gehien erabiltzen dena ere bai, balio sozialak sakon aztertzeko eta etorkizuneko joerak eta eskaerak prospektatzeko.

Hau da, esan daiteke **planteamendu metodologikoa honela gauzatu dela:**



## Erabilitako metodologia

### ELKARRIZKETA IREKI SAKONAK:

- Guztira **6 Elkarrizketa Ireki Sakon egin ditugu**. Hona ezaugarriak:
  - **Ikastetxeetako zuzendariak <sup>(1)</sup> : 3 Elkarrizketa Ireki Sakon.**
  - Heldutasun teknologiko handiko ikastetxea.
  - Heldutasun teknologiko ertaineko ikastetxea.
  - Heldutasun teknologiko baxuko ikastetxea.
- **Euskadiko Guraso Elkarten Federazioak: 3 Elkarrizketa Ireki Sakon.**
  - Bige.
  - Baikara.
  - Denon Eskola.

(1) Ikastetxeak heldutasun teknologikoaren arabera sailkatzeko orduan Eusko Jaurlaritzaren Ikastetxearen Heldutasun Teknologikoaren Eredua erabili dugu, ikastetxe bakoitzaren digitalizatzeko maila neurtzeko balio duelako. Horrela, ikusten da heldutasun teknologiko handiko ikastetxeak bat datozela Eusko Jaurlaritzaren Ereduan "Heldutasun teknologiko ertaineko" ikastetxetzat jotzen direnekin; Heldutasun teknologiko ertaina dutenak Ereduan "Oinarrizko Heldutasun Teknologikoko" ikastetxetzat jotzen direnekin; eta heldutasun teknologiko baxuko ikastetxeak bat datozela Ereduan "Programan ez da sartzen" multzoan dauden ikastetxeekin.



## Erabilitako metodologia

### TALDE DINAMIKAK

- Guztira **6 talde dinamika egin ditugu**. Taldeak osatzeko, batez ere honako bi aldagai hauek hartu ditugu kontuan:
  - Ikastetxeen heldutasun teknologikoa <sup>(1)</sup>.
  - Lurralde historikoak edo aldagai geografikoa.
- Azterlana egiteko **EAEko 21 ikastetxetako irakasleek hartu dute parte** ( 13 Bizkaikoak, 5 Gipuzkoakoak eta 3 Arabakoak).

	<b>Bizkaia</b> (Bilbao)	<b>Gipuzkoa</b> (Donostia)	<b>Araba</b> (Gasteiz)
<b>Heldutasun teknologiko handiko ikastetxetako</b> LHko 6. mailako eta DBHko 1. mailako irakasleak	1 Talde dinamika	1 Talde dinamika	-
<b>Heldutasun teknologiko ertaineko ikastetxetako</b> LHko 6. mailako eta DBHko 1. mailako irakasleak	1 Talde dinamika	1 Talde dinamika	1 Talde dinamika
<b>Heldutasun teknologiko baxuko ikastetxetako</b> LHko 6. mailako eta DBHko 1. mailako irakasleak	1 Talde dinamika	-	-

(1) Ikastetxeak heldutasun teknologikoaren arabera sailkatzeko orduan Eusko Jaurlaritzaren Ikastetxearen Heldutasun Teknologikoaren Eredua erabili dugu, ikastetxe bakoitzaren digitalizatzeko maila neurtzeko balio duelako. Horrela, ikusten da heldutasun teknologiko handiko ikastetxeak bat datozela Eusko Jaurlaritzaren Ereduan "Heldutasun teknologiko ertaineko" ikastetxetzat jotzen direnekin; Heldutasun teknologiko ertaina dutenak Ereduan "Oinarrizko Heldutasun Teknologikoko" ikastetxetzat jotzen direnekin; eta heldutasun teknologiko baxuko ikastetxeak bat datozela Ereduan "Programan ez da sartzen" multzoan dauden ikastetxeekin.



## Erabilitako metodologia

Esate baterako, landa lana egiteko, **Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren laguntza izan dugu**, eta honako lanak egin ditu:

- Batetik, definitzea **ikastetxeak heldutasun teknologikoaren arabera sailkatzeko irizpideak**.
- Bigarrenik, **azterlanean parte har dezaketen ikastetxeen zerrenda egitea**.
- Hirugarrenik, **ikastetxeekin harremanetan jartzea**, azterlana zertan datzan azaltzeko eta jakiteko ikastetxeak zein iritzi duen irakasleren batek edo zuzendariak bertan parte hartzeko.
- Laugarrenik, **Guraso Elkarten Federazioarekin harremanetan jartzea**, azterlana zertan datzan azaltzeko eta jakiteko ea azterlanean parte hartzeko prest dauden.





## Erabilitako metodologia

Bide batez, **Datuak Babesteko Euskal Bulegoak** eskerrak eman nahi dizkie ondoko ikastetxeetako zuzendariei, ikerketa hau egiten emandako laguntzagatik:

- **Altza BHI.**
- **Dolores Ibaruri BHI.**
- **Gabriel Aresti BHI.**
- **Hernani BHI.**
- **Lizardi BHI.**
- **Miguel de Unamuno BHI.**
- **Zaraobe BHI.**
- **Uribe Kosta BHI.**
- **Alkartu Ikastola HLHI.**
- **Amara Berri HLHI.**
- **Doctor Fleming HLHI.**
- **Gobela Ikastola HLHI.**
- **Ikasbidea Ikastola IPI.**
- **San Viator HLBHIP.**



# 1. Kapituluua

## LHko 6. mailako eta DBHko 1. mailako ikasleek ikastetxetik kanpo nola erabiltzen dituzten teknologia berriak



1. Zein IKT erabiltzen dituzte?

2. Noiz hasten dira erabiltzen?

3. Zertarako erabiltzen dituzte IKTak?

4. Nola erabiltzen dituzte?





## Ikasleek IKTak erabiltzen dituzte eskolako testuingurufik kanpo

### 1. Zein IKT erabiltzen dituzte?

11 eta 13 urteko ikasleek teknologia berriak erabiltzea eta erabiltzen dituztenen tipologiak zer ikusi zuzena du testuinguruarekin, hau da: **ARO DIGITALAREKIN**, horixe baita egokitu zaien **une soziala**. Azterlanaren jomuga izan den adin tarteko pertsonak une berezian jaio dira; izan ere, jaio diren munduan IKTak eta informazioaren eta komunikazioaren esparruko gailu teknologikoak etengabe ari dira ugaltzen bizitzaren arlo guztietan: telefono mugikorrak, Internet bidezko nabigazioa, sare sozialak, posta elektronikoa, telebista interaktiboa, Internet bidezko erosketak... gero eta sartuago daude laneko eta familiako esparruetan eta norberaren bizitzako gainontzeko arloetan ere.

Horrekin lotuta eta gazteen harremanen esparruari dagokionez, hezkuntza komunitateak azpimarratu nahi du IKTek eragin handia dutela **gazteen sozializazio prozesuan**, eta garrantzi handiena dutenak direla **sare sozialak**, **txateatzeko aplikazioak** (WhatsApp) eta **telefonoa** (telefonoa aurreko guztien euskarria da). Horiek dira **parekoen arteko komunikazio tresna garrantzitsuenak**. Horrek erabat baldintzatu ditu azterlanaren ondorioak. Ondorioak ondoko orrietan daude azalduta.



*"Gazteek IKTak erabiltzea oso ohikoa da; are gehiago, urruti samar duten pertsonekin harremanetan jartzeko modurik arruntena da, koadrilarekin eta ikastetxearekin ere bai" (Heldutasun teknologiko baxuko Bizkaiko ikastetxeetako irakasleak)*



## Ikasleek IKTak erabiltzen dituzte eskolako testuingurufik kanpo

### 1. Zein IKT erabiltzen dituzte?

- Begien bistakoa da informazioaren eta komunikazioaren teknologiek berebiziko garrantzia hartu dutela gazteen sozializazio prozesuan. Horrekin lotuta esan behar da elkarriketan parte hartu duten ikastetxe guztiak bat datozela esatean **telefono mugikorra dela, baina Interneteko konexioarekin**, 11 eta 13 bitarteko gazteek gehien erabili ohi duten IKTa.



*"Telefono mugikorra da egungo bizimodu berria. Ikasleek halaxe ezagutzen dute eta halaxe bizi dute" (Heldutasun teknologiko ertaineko Bizkaiko ikastetxeetako zuzendariak)*

- Bigarren mailan daude bestelako IKTak, esate baterako, **ordenagailu eramangarriak, tabletak eta bideo-kontsolak**, azken horiek zer ikusi gehiago dutelako aisialdiarekin eta eskolako testuinguruarekin.




*"Gehien erabiltzen duten bigarren gailua, ez dakit zein izan daitekeen, tableta eta ordenagailu eramangarria, biak batera. Batez ere multimedia ontuetarako: pelikulak eta serieak ikusi ahal izateko nahi duten orduan" (Guraso elkarteen federazioak)*



## Ikasleek IKTak erabiltzen dituzte eskolako testuingurufik kanpo

### 1. Zein IKT erabiltzen dituzte?



*11-13 urte bitarteko gazteek  
gehien erabiltzen dituzten IKTak*



## Ikasleek IKTak erabiltzen dituzte eskolako testuingurufik kanpo

### 2. Noiz hasten dira erabiltzen?

- Aurrerapen teknologikoen abiadura kontuan hartuta, eta bizitzako arlo guztietan nola errotu diren ikusita, kolektibo guztiek uste dute **gero eta azkarrago hasten direla haurrak IKTak erabiltzen**. Nabarmena da hori haur hezkuntzan; izan ere, ukimenezko sistema dituzten gailuak erabiltzeko joera gora doala antzematen baita.

*"Idazlan batean lehen hezkuntzako 1. mailako 26 ikasletik 23k esan zuten tableta zela jostailurik kuttunena" (Heldutasun teknologiko ertaineko Bizkaiko ikastetxeetako irakasleak)*

*"Teklatuaren oztopoa kendu izanak izugarri erraztu du teknologietarako sarbidea. Oraintsu arte, idazten jakin ezean, ezin zenuen ezer egin. Orain, ordea, hatz batekin mugitu dezakezu eta erabili" (Guraso elkarten federazioak)*



- Bestalde, **IKTak erabiltzen zenbat urterekin hasten diren jakiteko**, esan behar da tresna edo gailuaren arabera izaten dela.
  - **Telefono eramangarriari dagokienez**, esan daiteke **lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailan** hasten direla erabiltzen, ikasle askok **jaunartzea** egiten dutenean edo Gabonetan eskuratzen dutelako. Esan daiteke bigarren hezkuntzan Interneteko konexioa duten smartphoneak erabiltzea erabat zabalduta dagoela.

*"Esan daiteke bigarren hezkuntzako 1. mailako ia % 90ek dutela telefono mugikorra, eta gehienek lehen hezkuntzako 5. edo 6. mailan eskuratu dutela" (Heldutasun teknologiko ertaineko Arabako ikastetxeetako irakasleak)*



## Ikasleek IKTak erabiltzen dituzte eskolako testuingurufik kanpo

### 2. Noiz hasten dira erabiltzen?

- **Sare sozialei dagokienez**, esan daiteke sare sozialen aranerako dela horiek erabiltzen hasteko adina. Sare sozialekiko lehengo harremana Tuenti bidez izaten da, eta gero hasten dira Twitter erabiltzen, eta azkenik, Facebook.



*“DBHko 1. mailan hasten dira Tuenti erabiltzen, 2. mailan Twitter erabiltzen eta 4. mailan Facebook”. (Heldutasun teknologiko ertaineko Bizkaiko ikastetxeetako irakasleak)*

*"Lehen hezkuntzako 6. mailan eta DBHko 1. mailan Tuenti, Twitter eta Gmail erabiltzen dituzte; ez diet entzun Facebook erabiltzen dutenik". (Heldutasun teknologiko baxuko Bizkaiko ikastetxeetako irakasleak)*





- Tartean badira **oso goiz** hasten direnak ere sare sozialak erabiltzen , batez ere, Tuenti.

*"Neska batzuk goiz hasten dira, lehen hezkuntzako 3. eta 4. mailan, Tuenti erabiltzen". (Heldutasun teknologiko altuko Gipuzkoako ikastetxeetako irakasleak)*



**Ikasleek IKTak erabiltzen dituzte eskolako testuingurufik kanpo**

**2. Noiz hasten dira erabiltzen?**




**HH**  
**3 + urte**



(marrazki bizidunak)

**LH 5-6**

Mugikorra erabiltzen hasi  
Tuenti erabiltzen hasi  
eta WhatsApp



**DBH 1-2**

Smartphonea  
Tuenti, WhatsApp  
eta Twitter  
orokortu



**DBH 3-4**

Sare sozial guztiak  
darabiltzate





## Ikasleek ICTak erabiltzen dituzte eskolako testuingurufik kanpo

### 3. Zertarako erabiltzen dituzte

- Kontuan hartuta zein garrantzitsuak diren ICTak sozializatorako, guraso elkarrekin, irakasleek eta zuzendariak, denek uste dute LHko 6. mailako eta DBHko 1. mailako ikasleek **harreman sozialetarako erabiltzen dituztela nagusiki**, batez ere, **parekoen taldeekiko harremanetarako**; eta mugikorra da kanal garrantzitsuena (WhatsApp, sare sozialak). Hain zuzen ere, telefono mugikorra **behar soziala da**.
  - Smartphonea **taldearekin lotuta eta komunikatuta egotea ahalbideratzen dien tresna da**, batez ere, testu-mezuen, argazkien eta bideoen bidez. Telefono deiek, ordea, gutxitzeko joera ageri dute.



"Haien foro soziala da, zenbat eta jende gehiago izatea erantsita, haien Twitterra, Tuentia...; 200 edo 300 lagun dituzten neska-mutilak daude, eta gizartearen aurrean irekiagoak egiten ditu horrek" (Heldutasun teknologiko ertaineko Bizkaiko ikastetxeetako irakasleak)

"Edozelan ere, gero ez dakite zenbat minutu dituzten hitz egiteko; nik uste dut hitz egiteko balio dutela ere ez dakitela; nahikoa da Internet eta zera hori izatea, beste guztiak berdin die" (Heldutasun teknologiko altuko Bizkaiko ikastetxeetako irakasleak)



"WhatsApp bidez etengabe ari dira hitz egiten. Irakasle batek esan zuen talde batean sartu zutela konturatu gabe edo, eta goizeko 8:30etarako 80 mezu zeudela jada <<gosaltzen ari naiz gailetak eta ...>> erakoak" (Heldutasun teknologiko altuko Gipuzkoako ikastetxeetako irakasleak).



## Ikasleek IKTak erabiltzen dituzte eskolako testuingurufik kanpo

### 3. Zertarako erabiltzen dituzte

- Sozializazioa baldintzatzen duen elementu bat da; eta elkarrizketan parte hartu duten kolektiboak bat datoz esatean **halakorik ez izatea kaltegarria izan daitekeela** haurrentzat, batez ere, isolamendua eta bazterkeria ekar dezaketelako.

*"Ez bazaude WhatsApp taldean baztertuta zaude. Gerta daiteke irteteko deitu ere ez egitea. Une batetik aurrera gurasorik protekzionistenak eta arriskuekin kontzientziatuenak ere amore eman behar du" (Heldutasun teknologiko altuko Gipuzkoako ikastetxeetako zuzendariak)*

- Elkarrizketan parte hartu duten kolektiboek diote bigarren erabilera garrantzitsua dela **aisialdirako erabilera**: pelikulak ikusteko, telesailak deskargatzeko, musika entzuteko, bideo-jokoetan ibiltzeko eta abar. Mugikorrez gain, ordenagailuak, tabletak eta bideo-kontsolak gero eta garrantzi handiagoa ari dira hartzen.

*"Multimedietarako sarbidea, gustatzen zaizkien telesailen web orriak bilatzen dituzte edo Youtube erabiltzen dute bideoak grabatzeko eta igotzeko..." (Guraso elkarten federazioak)*

- Hirugarren erabilera IKTen **eskolako erabilera edo erabilera pedagogikoa** da. Halakoetan, IKTak informazioa bilatzeko, lanak egiteko, etxeko lanak jaso eta bidaltzeko, ... erabiltzen dituzte.

*"Irteeretan ikasle bakoitzak monumentu baten ardura du, eta kontatu behar duen historia grabatzen du mugikorrean, turismo gida bat izango balitz bezala da. Gero WhatsApp bidez pasatzen diote elkarrizketak" (Heldutasun teknologiko ertaineko Bizkaiko ikastetxeetako irakasleak)*





## Ikasleek IKTak erabiltzen dituzte eskolako testuingurufik kanpo

### 3. Zertarako erabiltzen dituzte

- Azpimarratu behar da hezkuntza jarduerarekin harreman estuagoa duten kolektiboek (irakasleek eta zuzendariak) uste dutela **ikasleek prestakuntza-gabeziak dituztela**, eta horregatik ezin dutela arlo pedagogikoan behar besteko etekinik atera: IKTen arloan gazte adituak dira, baina aisialdiko erabilera eta gizarte erabilera bakarrik. Hona gabezia horietako batzuk:



- Irizpiderik ez dute **kalitatezko informazio iturriak bereizteko**.

*"Ez dute informazioa bahetzen, lehenengo ikusten dutena horixe hartzen dute eta ez dira irazitako gai. Are gehiago, ia ez dute irakurri ere egiten, kopia eta itsatsi egiten dute" (Heldutasun teknologiko ertaineko Arabako ikastetxeetako irakasleak)*



- Eta **ofimatikako aplikazioak ez dituzte behar bezain ondo menperatzen; esate baterako**, dokumentuak sortu eta editatzekoak.

*"Haiekin lan egitean konturatzen zara dakitena dakitela bakarrik, eta esaten diezunean karpeta bat irekitzeko Drive-n eta dokumentu bat sortzeko bertan, ez dakite nola egiten den, ez delako haien munduko kontu bat" (Heldutasun teknologiko altuko Bizkaiko ikastetxeetako irakasleak)*



## Ikasleek IKTak erabiltzen dituzte eskolako testuingurufik kanpo

### 3. Zertarako erabiltzen dituzte



1 Harreman sozialetarako:



2 Aisialdirako:



IKTak zenbat  
erabiltzen  
dituzten,  
erabilera  
motaren  
arabera

3 Eskola erabilerarako:

Google  
Apps





## Ikasleek IKTak erabiltzen dituzte eskolako testuingurufik kanpo

### 4. Nola erabiltzen dituzte?

- Elkarrizketatuen iritziak bat datoz esaten dutenean LHko 6. mailako eta DBHko 1. mailako ikasleek **MODU INTENTSIBOAN** erabiltzen dituztela IKTak, bate ere, WhatsApp eta sare sozialak. **Etengabe erabiltzen dituzte**, gurasoek uzten dieten denbora guztian, eta ahal izanez gero, **ez lituzkete sekula telefono mugikorrak itzaliko**, ez ikastorduetan ez gauean.

*"Eguneko 24 ordutan erabiltzen dute, aste barruan ere bai. Almoadapean izaten dute, erne egon behar dugu. Nik semea ondo zainduta eduki dut, baina inoiz harrapatu dut gaez telefonoarekin" (Heldutasun teknologiko ertaineko Bizkaiko ikastetxeetako irakasleak).*

- Horrez gain, aipatu dute gero eta **menpekotasun** handiagoa dutela telefono mugikorrekiko, telefona delako lagun taldearekin duen loturarik estuena. Gurasoek zigor moduan darabilte telefono mugikorra erabiltzeko debekua. Horrek argi adierazten du zein garrantzitsua den gailua haurrentzat.



*"Menpekotasun psikologiko handi samarra dute. Mugikorrik gabe galduta daudela uste dute, guztiz babesgabe sentitzen dira. Haien komunikazioetan, sare sozialak dira garrantzitsuenak" (Heldutasun teknologiko altuko Gipuzkoako ikastetxeetako zuzendariak)*



## Ikasleek IKTak erabiltzen dituzte eskolako testuingurufik kanpo

### 4. Nola erabiltzen dituzte?

- Baloratzean **gurasoek zenbat GAINBEGIRATZEN duten erabilera**, elkarrizketatutako kolektibo gehienek diote erabiltzaileen profil bi daudela:
  - Badirela haur batzuk **modu kontrolatuan erabiltzen dituztenak IKTak** (batez ere, mugikorra eta Internet); baina horiek **gutxienak direla**. Esparru honetan aipatu dituzten kontrolatzeko moduen artean, badira zenbait neurri, motel samarrak: gurasoek zehatzea erabilera ordutegia (ikasteko ordutegia zehaztea, gauekoa...), erabilera jarraibideak (zer egin dezaketen eta zer ez), etxeko toki komunetan erabili beharra eta zein tokitan ibili diren nabigatzen, eta sare sozialetako profilak eta mezularitza aplikazioak gainbegiratzea. Baina badira beste batzuk zorrotzagoak, esate baterako, sare sozialak eta txateatzeko eta mezularitzako aplikazioak debekatzea.

*"Nik uste dut erabilera onak eta okerrak zein diren dakiten familietan ematen dituztela jarraibideak, baina, oro har, hor geratzen da kontua, orokorrak izaten dira, baina ez dira nahikoa" (Guraso elkarten federazioak).*

*"Niri behin guraso batek esan zidan egunero gainbegiratzen zuela alabaren mugikorra; mugikorra hartu eta dena begiratzen dion, WhatsApp ere bai. Harritu egin nintzen. Halakorik egiten duen pertsona bakarra da guk dakigula" (Heldutasun teknologiko ertaineko Gipuzkoako ikastetxeetako irakasleak).*



## Ikasleek IKTak erabiltzen dituzte eskolako testuingurufik kanpo

### 4. Nola erabiltzen dituzte?

- Haur gehienek **modu oso autonomoan erabiltzen dituzte IKTak, inork kontrolatu gabe**. Kontrol falta azaltzen duten arrazoiak argitzeko faktoreen artean aipatu ditzakegu, batetik, **gurasoen ezjakintasuna edo prestakuntza eza**; eta, bestetik, **Internetera edonon konektatzeko aukera zabaldu izana**, mugikorren konektibitaterako Interneteko tarifa finkoak hedatu direnez geroztik. Horren ondorioz, lehen Internet nola erabiltzen zen zaintzeko mahai gaineko ordenagailua etxean guztiek ikusteko tokian jartzen bazen, egun alferrik da hori egitea.

*"Egun etxeko ordenagailu gehienak eramangarriak dira, eta tabletak ere badituzte.*

*Lehen egongelan egoten zen ordenagailua egun desagertzeko zorian dago"*

*(Heldutasun teknologiko altuko Gipuzkoako ikastetxeetako irakasleak)*

*"Inork ez die azaldu, gurasoek ere e; eskolan gehiago ala gutxiago kontrolatzen da,*

*baina gero etxera doaz eta ez dute ezelako kontrolik"* (Heldutasun teknologiko

*ertaineko Bizkaiko ikastetxeetako irakasleak).*

*"Gurasoek ez dakite zein tresna erabil daitezkeen Interneterako eta sare sozialetarako*

*sarbidera erabatekoa ez dadin izan. Adibidez, telebista ikusten daudenean, kanala*

*aldatu eta zenbait eszena ken daitezke, baina mugikorrean ez da hain erraza gaiak*

*murriztea"* (Heldutasun teknologiko altuko Gipuzkoako ikastetxeetako irakasleak).





## Ikasleek IKTak erabiltzen dituzte eskolako testuingurufik kanpo

### 4. Nola erabiltzen dituzte?

**Gurasoek ezarritako gainbegiratze-neurri  
garrantzitsuenak**



1. *Jarraibideak ematea: aholkuak, oinarritzko gomendioak (zentzua erabiltzea).*
2. *Ordutegiak ezartzea.*
3. *Sare sozialak eta txateatzeko eta mezularitzako aplikazioak erabiltzea debekatzea.*
4. *Etxeko gune komunak erabiltzea.*
5. *Mugikorraren edukiak gainbegiratzea.*





## 2. Kapitulu

2.- LHko 6. eta DBHko 1. mailako ikasleen jarrera pribatutasuna eta datu pertsonalen babesaren aurrean, IKTen erabileraren testuinguruan.



1. Ulertzen dute zein garrantzitsua den pribatutasunaren eta datu babesaren kontzeptua?
2. Zergatik gertatzen da hau?
3. Zein arrisku egoera ekar dezake honek?



## Ikasleen jarrera pribatutasuna eta datu pertsonalen babesaren aurrean, IKTen erabileraren testuinguruan.

### 1. Ulertzen dute zein garrantzitsua den pribatutasunaren eta datu babesaren kontzeptua?

Sare sozialak eta mezularitza eta txat zerbitzuak erabiltzea oso-oso lotuta dago pribatutasunarekin eta datu babesarekin; alde batetik, horietan erregistratzeko, bete beharreko baldintzekin eta pribatutasun politikarekin hirurek dituzten irizpideengatik; eta, bestetik, pertsonak haien borondatez bertan jarri nahi dituzten edo bertatik bidali nahi dituzten irudiengatik. Esan behar da 11 eta 13 urte bitarteko ikasleek pribatutasunari eta datu babesari buruz agertzen duten **sentsibilizazio mailaz**, hezkuntza komunitatea bat datorrela hiru alderdi hauek aipatzean:

- Badirudi ezdituztela **barneratuta pribatutasunaren eta datu babesaren kontzeptuak**, eta intimitatea zer den ere ez dutela ondo ulertzen; eta sentsazio hori are larriagoa da sare sozialen eremuaz ari garenean.



*"Uste dute pribatutasuna gauza fisikoak direla, haien gauzak; baina ez informazioa eta datuak; uste dut ezetz, ez direla gauza horietaz jabetzen".  
(Heldutasun teknologiko ertaineko Bizkaiko ikastetxeetako irakasleak)*

*"Nik uste dut gaur egun ezinezkoa dela bereiztea zer den esparru publikoa eta zer pribatua. Publikoa non hasten den finkatzen duen muga oso lausoa da, eta, zenbaitetan, jolasean ari direla, igaro egiten dute muga" (Heldutasun teknologiko ertaineko Arabako ikastetxeetako irakasleak).*





## **Ikasleen jarrera pribatutasuna eta datu pertsonalen babesaren aurrean, IKTen erabileraren testuinguruan.**

### **1. Ulertzen dute zein garrantzitsua den pribatutasunaren eta datu babesaren kontzeptua?**

- Horretaz gain, hezkuntza komunitateak dio arriskutsuena dela **ez direla inondik inora jabetzen Interneten egiten dutenak etorkizunean ekar ditzakeen ondorioez**. Ikasleek badakite nola dabilzan eta zertarako balio duten, **baina ez dira gai erabileraren ondorioak ikusteko, ez eta** sare sozialetan izandako zenbait jarrerak ekar ditzaketen arriskuak ere.

*"Nik ezin dut beste pertsona bat ordezkatu, ezin naiz ibili esaten beste bat naizela; eta gazteak ez dira arrisku horretaz jabetzen". (Heldutasun teknologiko ertaineko Gipuzkoako ikastetxeetako irakasleak)*

*"Ez dakite oso ondo zer-nolako informazioa ematen duten, nolako argazkiak, bideoak... bidaltzen dituzten. Haiei buruzko kontuak jakinarazten dituzte, eta hori ez da hor geratzen. Auskalo noraino hel daitekeen". (Heldutasun teknologiko ertaineko Bizkaiko ikastetxeetako zuzendariak)*





## Ikasleen jarrera pribatutasuna eta datu pertsonalen babesaren aurrean, IKTen erabileraren testuinguruan.

### 1. Ulertzen dute zein garrantzitsua den pribatutasunaren eta datu babesaren kontzeptua?

- Era berean diote arriskuez ez badira jabetu eta ez badituzte barneratu, **ez dela kontzeptuei buruzko informaziorik ez dutelako jaso**; izan ere, hartu beharreko neurriei eta saihestu beharreko arriskuei buruzko nahikoa informazio eta mezu eman zaie.

*"Badakite sartzen dutenak arriskua duela, eta sartzen dute horrek urteak emango dituela hor, eta edonork erabili ahal izango duela. Baina jakin arren, ondo jabetu behar dira horretaz guztiaz, eta ondorioak ikusi behar dituzte, hori baita haien arazoa (Heldutasun teknologiko baxuko Bizkaiko ikastetxeetako irakasleak)*

*"Seme bat dut eta askotan esaten diot <<argazki bat jarri duzu. Badakizu erabili egin dezaketela>>, eta berak erantzuten dit <<ederra tontakeria ama, niri ez dit inporta agertzea>> (Guraso elkarteen federazioa)*





## Ikasleek IKTak erabiltzen dituzte eskolako testuingurufik kanpo

### 2. Zergatik gertatzen da hau?

Lehenago esan dugu, elkarrizketan parte hartu duten kolektiboen esanetan, 11 eta 13 urte bitarteko ikasle gehienek gutxi gorabehera baino ez dituztela ulertzen pribatutasunaren eta datu babesaren kontzeptuak; eta, gainera, ez dira ohartzen Interneten, sare sozialetan eta mezularitza zerbitzuetan (WhatsApp) egiten dutenak etorkizunean izan ditzaketen ondorioez. Atal honetan aurkeztuko ditugu zein diren egoera hori azaltzen duten **5 faktore nagusiak**, guraso elkarteen federazioen eta ikastetxeetako irakasleen eta zuzendaritza taldeen ustez:



**Zergatik ez  
diren  
jabetzen.  
Faktoreak.**

- 1. Intimitatearen ordeiz, extimitatea bultzatzen duten balio sozialak.**
- 2. Heldutasun prozesua eta bizitza esperientzia murrizta.**
- 3. "Lagun taldearen" segurtasun-hesia izatea.**
- 4. Sarean izandako jarrerak hutsaltzea eta erlatibizatzea (jolasa).**
- 5. Informazioa bilatzeko eta manipulatzeko tresnen berri ez izatea.**



## Ikasleek IKTak erabiltzen dituzte eskolako testuingurufik kanpo

### 2. Zergatik gertatzen da hau?

1. **Balio sozialak.** Hezkuntza komunitatearen ustez, **intimitatea modatik pasatu da**, eta **extimitateari** utzi dio tokia. Egun gizartean indarra hartu duten balioek **garrantzi handiagoa ematen diote gauzak erakusteari gordetzeari baino**; eta horri gehitzen badiogu sareak eskaintzen duen zabalkunderako aukera, gazteentzat erraza da esan dugun bezala jokatzea. Horrez gain, hezkuntza komunitateak dio balio horien ondorioz **publikoa zer den eta pribatua zer den bereizten duen muga lausotu egin dela**; baina ez bakarrik ikasleen aldetik; izan ere, gauza bera gertatu baitzaie erreferenteak izan beharko ziren figurei ere, hau da gizartea eredu izan behar direnei (idoloei, pertsonaia ospetsuei...) eta gurasoei ere bai.

*"Badirudi bizitzaren pribatutasuna desagertu egin dela; ematen du "guai" edo normal jokatzea dela denbora guztian irudi, dokumentazio eta abarren bidez... egiten ari garena esaten ibiltzea etengabe, sentimenduak izan nahiz edozer izan" (Heldutasun teknologiko altuko Gipuzkoako ikastetxeetako zuzendariak)*



*"Neska-mutilek ez dituzte ulertzen datuen eta pribatutasunaren babesari buruzko kontzeptuak. Gainera, extimitatea behar dute, ez intimitatea. Extimitatea intimitatearen kontrakoa da." (Heldutasun teknologiko ertaineko Bizkaiko ikastetxeetako irakasleak)*



## Ikasleek IKTak erabiltzen dituzte eskolako testuingurufik kanpo

### 2. Zergatik gertatzen da hau?

- Elkarrizketatutako eragile gehienek uste dute **badirela zenbait guraso seme-alabentzako eredu onak ez direnak**, seme-alabek egiten dituzten akats berak egiten dituztelako Interneten dabiltzanean.

*"Heldu batzuk ez dute oso ondo kontrolatzen. Ikus dezakezu Facebooken argitaratzen duten informazioa pertsonala dela, adibidez, oportetako argazkiak.*

*Gurasoek garrantzirik ez badiete ematen halako gauzei, seme-alabek ere ez"*

*(Heldutasun teknologiko baxuko Bizkaiko ikastetxeetako irakasleak)*



*"Guk ezin dugu eredu izan, guk geuk hautsi dugulako oreka" Gu hartzen bagaituzte eredutzat, ezin izango dute bereizi zer den pribatua eta zer publikoa; uste dut ikusten dutena egiten dutela"* (Heldutasun teknologiko ertaineko

*Arabako ikastetxeetako irakasleak)*

- Eta **gazteek dituzten idoloak eta erreferenteak ere ez dira eredu onak**; izan ere, horiek sare sozialetan egiten dutenak gehiago indartzen baitu honako uste hau: "erakusten duenak arrakasta duela eta arrakasta duenak erakutsi egiten duela".

*"Komunikabideek horixe sustatzen dute, dena partekatu beharra; telebista piztu orduko ikusten dituzu pertsonaia ospetsuak, sasi ospetsuak, etengabe elkarri mezuak bidaltzen. Gazteek ikusten dute nor izan nahi badute, existitu nahi badute, gauza bera egin behar dutela"* (Heldutasun teknologiko baxuko

*Bizkaiko ikastetxeetako irakasleak)*



## Ikasleek IKTak erabiltzen dituzte eskolako testuingurufik kanpo

### 2. Zergatik gertatzen da hau?

2. Ondorioez jabetzea eragozten duen beste faktore batzuk ikasleen **heldutasun prozesua** eta bizitza esperientzia dira. Guraso elkarteek aipatu dute kontzeptu hauek ulertzen oso zailak direla lehen hezkuntza 6. mailako eta bigarren hezkuntzako 1. mailako ikasleentzat; 3. mailan, ordea, bizitzako ibilbidea apurtxo luzeagoa izan denez, prestatuago daude kontzeptuok ulertzeko eta barneratzeko.

*"Ez dira konturatzen. DBHko 3. mailatik aurrera hasten dira konturatzen. Baina, 5., 6., 1. eta 2. mailetan ezer ere ez. Ikaragarria da. Denetarik pasatzen diote elkarri, argazkiak... elkar iraintzen ibiltzen dira, edozein astakeria esaten dute ezelako beldurrik gabe..." (Guraso elkarten federazioak).*



3. Hirugarrenez, aipatu dute antzematen dela **"lagun-taldeak" pribatutasun sentsazioa eta ingurune seguruaren sentsazioa** ematen diela Interneten dabiltzanean. Horrek esan nahi du gazteek uste dutela bidaltzen edo argitaratzen dituzten edukiak lagun taldearen babespean gordeta egongo direla beti (WhatsApp taldea, Tuentiko kontaktuak...), eta ez zaie burutik pasatzen hortik kanpora agertu daitezkeenik; baina, askotan gertatzen da hori.

*"Ez zaie iruditzen argitaratzen dutena hain publikoa denik. Pribatuagoa dela uste dute; zera pentsatzen dute: <<laguntzako da eta!>>. Baina, kontuz, 650 lagun badituzte... Haien buruak babesteko esaten duten lehenengo gauza da <<baina ezin du edonork ikusi eta!>> (Heldutasun teknologiko altuko Gipuzkoako ikastetxeetako irakasleak).*



## Ikasleen jarrera pribatutasuna eta datu pertsonalen babesaren aurrean, IKTen erabileraren testuinguruan.

### 2. Zergatik gertatzen da hau?

4. Hezkuntza komunitateak beste hau ere esan du: ikasleek joera handia dutela **Interneten dituzten portaerei garrantzia kentzeko, jolas moduan hartzen dutelako**. Hau da, uste dute sareak ez duela merezi bertatik bertara egiten ditugun harremanetarako guneek merezi duten seriotasun bera; eta, guztiz desinhibituta, txoriburu eta lotsagabe ageri dira.

*"1. mailako gelan esan didate neska batek bere buruaren argazki bat bidali zuela WhatsApp bidez eta bularretako bistan zegoela. Neska horri esanez gero egindakoaz hausnartzeko, eta galdetuz gero ea argazkia jarriko lukeen gelako ohar taulan, eskandalua dela pentsatuko zuen" (Heldutasun teknologiko altuko Gipuzkoako ikastetxeetako irakasleak)*

*"Ordenagailuan zaude, nahi duzuna esaten duzu... distantzia handia dago, urruti zaude, ez zaude bertan... Ni baditut zenbait ikasle oso lotsatiak, baina sare sozialetan oso bestelako bizimodu dutenak. Ez da anonimotua, urruntasuna da segurtasuna ematen duena" (Heldutasun teknologiko ertaineko Bizkaiko ikastetxeetako irakasleak).*

5. Azkenik, azpimarratu dute **ikasleek ezer gutxi dakitenez sarean dagoen informazioa bilatu eta manipulatzeko tresnei buruz**, horrek ere ez duela laguntzen prebentzioko neurriak hartzeko.

*"Probak egiten ditugunean eta haiei buruzko informazioa bilatzen dugunean Interneten, harrিতa geratzen dira ikusten dutenean sareak zenbat dakien haiei buruz. Zera esaten dute: <<baina argazki hori duela urte batzuk zintzilikatu nuen eta!>>" (Heldutasun teknologiko ertaineko Bizkaiko ikastetxeetako irakasleak).*



## **Ikasleen jarrera pribatutasuna eta datu pertsonalen babesaren aurrean, IKTen erabileraren testuinguruan.**

### **3. Zein arrisku egoera ekar dezake honek?**

Faktore horien gabeziak dakarren ondorioa da ikasleak ez direla jabetzen Interneten egiten dutenak arriskuak eta ondorioak izan ditzakeela. Irakasleak, zuzendariak eta gurasoak bat datoz esatean horren ondorioz, ikasleek arriskuko jarduerak burutzen dituztela:



**Ikasleen  
arrisku  
jarrerak**

- 1. Datu sentsibleak argitaratzea.**
- 2. Profil faltsuak sortzea.**
- 3. Pasahitzak zaintzeko ardura gutxi izatea.**
- 4. Bakoitzak bere datuak behar bezala ez kontrolatzea ordenagailu publikoetan.**







## **Ikasleen jarrera pribatutasuna eta datu pertsonalen babesaren aurrean, IKTen erabileraren testuinguruan.**

### **2. Zergatik gertatzen da hau?**

- **Datu pertsonalak argitaratzen dituzte sarean**, pertsona batzuk jakiterik nahi ez duten datuak ere bai.

*"Iaz ikasle batek Twitter bidez esan zuen homosexuala zela eta ez zuela amak jakiterik nahi. Eta gu geu ere enteratu egin ginen". (Heldutasun teknologiko altuko Gipuzkoako ikastetxeetako irakasleak).*

- **Ez dituzte pasahitzak zorrotz zaintzen**, eta erraz ateratzeko modukoak izaten dira; gainera, zenbaitetan, lagunekin ere partekatzen dituzte.

*"Inozoegiak dira, jaiotze data eta tokia erabiltzen dituzte pasahitzetan eta segurtasun galderan amaren abizena" (Heldutasun teknologiko ertaineko Bizkaiko ikastetxeetako irakasleak).*

- Ez dute ondo erabiltzen **"saioa itxi"** aukera partekatutako ordenagailuen bidez sare sozialetako profiletara edo posta elektronikotara sartzen direnean.

*"Zenbat aldiz gertatu zaigun Gmailen sartzea eta aurreko kontua zabalik ikustea, ez dutelako ondo itxi" Heldutasun teknologiko ertaineko Gipuzkoako ikastetxeetako irakasleak)*



## Ikasleen jarrera pribatutasuna eta datu pertsonalen babesaren aurrean, IKTen erabileraren testuinguruan.

### 2. Zergatik gertatzen da hau?

Edozelan ere, eta esanak esan, bada azpimarratzeko alderdi positiborik ere, hau da, hezkuntza komunitate osoa bat dator esatean **azken urteotan asko hasi dela** ikasleek pribatutasunari eta datu babesari buruz dakitena. Eskoletan egin den lanak eta komunikabideetan agertu diren berriek ere eragin handia izan dutela diote.

*"Bi urtetan hobekuntza handia igarri da. Duela bizpahiru urte kontu bat ireki nahi bazuten, ireki egiten zuten. Orain berriak entzun dituzte, leku batzuetan gauzak gertatu direla. Konturatu dira badirela egin behar ez diren gauzak" (Heldutasun teknologiko baxuko Arabako ikastetxeetako zuzendariak)*





# 3. Kapituluua

Gurasoak zenbateraino dauden arduratuta seme-alaben pribatutasunaz eta datu pertsonalen babesaz, IKTen erabileraren testuinguruan.



1. Zenbateraino daude kezkatuta?

2. Nola bideratzen dute kezka?



## Gurasoak zenbateraino dauden arduratuta seme-alaben pribatutasunaz eta datu pertsonalen babesaz, IKTen erabileraren testuinguruan.

### 1 Zenbateraino daude kezkatuta?

- Eragileek adierazitako iritziak ikusita, esan daiteke **egon badagoela kezka ezkutua edo kontzeptuala**. Gurasoek komunikabideen bidez dakiten arriskuen zati baten berri, **baina gero ez da benetako ardurarik ikusten, eta ez dituzte neurriak hatzen**. Hainbat arrazoi daude hori gertatzeko:

**Ezkutuko  
kezka  
azaltzen  
duten  
faktoreak**

- Ez dakite nola erabili IKTak eta zein aukera erabili dituzten.*
- Arretaren jomuga da zenbat erabiltzen dituzten eta nola.*
- Ez dute barneratuta behar bezala erabili ezean, zein ondorioak etor daitezkeen.*
- Kezkatuago daude seme-alabek "konektatuta egon ezean" izan ditzaketen ondorio sozialez.*





## Gurasoak zenbateraino dauden arduratuta seme-alaben pribatutasunaz eta datu personalen babesaz, IKTen erabileraren festuinguruan.

### 1 Zenbateraino daude kezkatuta?

- Hain **gutxi dakitenez IKTei buruz**, ez dira konturatzen seme-alabek egokiak ez diren edukiak ikusten edo aplikazioak erabiltzen ibil daitezkeela telefono mugikorraren bidez. Gainera, seme-alabek ez diete gurasoei esaten zertan ari diren sarean, konfiantza faltagatik.

*"Ez dira konturatzen zer den umea bakar-bakarrik uztea Internet zabal-zabalik duela; gauza gogor asko aurkitu ditzake, ez bakarrik sexua, gauza gogorrak eta larriak ere bai". (Guraso elkarten federazioak).*

*"Zenbat gurasok dakite kontrolatzen seme-alabek zer txateatzen duten? Hain zuzen ere, guraso askok ez dakite seme-alabek Twitter ala Facebook duten ere. Askotan kasualitatez enteratzen dira. Zein sare sozialetan dauden jakin gabe bizi dira". (Heldutasun teknologiko altuko Gipuzkoako ikastetxeetako zuzendariak).*

- Oro har, **gehiago begiratzen dute zenbat denbora ematen duten zertan baino**. Gurasoak arduratuta agertzen dira IKTak eta telefono mugikorra asko erabiltzen dituztelako, eta ez dute ikusten non dabiltzan eta zer ari diren jasotzen edo bidaltzen.

*"Nik uste dut gurasoak arduratzen direla ordu asko ematen dituztelako hurrek Interneten, eta berdin die zertan dabiltzan. Denbora asko ematen badute kezkatzen dira, horrek ikasketetan eragina badauka, behintzat" (Heldutasun teknologiko ertaineko Gipuzkoako ikastetxeetako irakasleak).*



## Gurasoak zenbateraino dauden arduratuta seme-alaben pribatutasunaz eta datu personalen babesaz, IKTen erabileraren festuinguruan.

### 1 Zenbateraino daude kezkatuta?

- Seme-alabek bezala, **ez dute erabat barneratuta** sare sozialak behar bezala erabili ezean, ondorio kaltegarriak etor daitezkeela; eta horren adierazgarri da gurasoek nola erabiltzen dituzten sare sozialak: **nerabeen antzera** erabiltzen dituztelako.



"Guraso gazte askok 12 eta 23 urte bitarteko gazteek egiten dituzten akats berak egiten dituzte sare sozialak erabiltzen dituztenean. Nerabeak balira bezala jokutzen dute..." (Guraso elkarteen federazioak).

- Gurasoei **buruhauste handiago ematen diete** 11-13 urte bitarteko gazteei mugikorra eta Internet kenduz gero jasan ditzaketen ondorio sozialek (bazerketa), **tresnok txarto erabiltzeagatik etor daitezkeen kalteek baino.**



"Guk ere ez dakigu zer egin, seme-alabek eskatutako zera bat da... Kentzen badiozu, ez dakizu horrek eraginik izango duen lagunekin; ez dago argi zer den hobe, ematea ala kentzea". Heldutasun teknologiko ertaineko Gipuzkoako ikastetxeetako irakasleak)



## Gurasoak zenbateraino dauden arduratuta seme-alaben pribatutasunaz eta datu personalen babesaz, IKTen erabileraren testuinguruan.

### 1 Zenbateraino daude kezkatuta?

- Hasieran batean kezka ezkutua edo kontzeptuala bada ere, **benetakoa bihur daiteke amak edo aitak berari eragiten dion arazo batekin topo egiten badu** (biktimaren aita ala ama izatea, seme-alabaren ikastetxean arazoren bat egotea) edo komunikabideetan entzundako gertakariak eraginda, entzundakoarekin identifikatuta sentitu daitezkeelako (biktima eta seme edo alaba adin berekoak izatea adibidez).

*"Tarteka baten bat agertu ahal izan da kezkatuta; baina, halakorik gertatu bada, arazo handiren bat egon delako izan da, adibidez, ikasleren batek zerbait grabatu duelako edo baten bati buruz gaizki esaka ari delako..." Heldutasun teknologiko altuko Gipuzkoako ikastetxeetako zuzendariak)*

- Gainera, esan daiteke gurasoek **erantzukizun handia dutela era honetako arazoetan, haiek bultzatuta eskuratzen dituztelako seme-alabek telefono mugikorrak**, gurasoek uste dutelako mugikorren gaineko kontrola dutela, eta uste okerra da hori.

➤ Gurasoek uste dute mugikorra seme-alabak kontrolatzeko tresna aproposa dela; baina, hasiera batean kontrol-tresna egokitzat jotzen dena, **azkenean kontrako erabilera duen tresna bihurtzen da, deskontrolerako tresna**. Seme-alabei mugikorrean Internet ipintzean **baliogabetu egiten dira ordura arte ondo funtzionatzen zuten kontrol neurriak**, adibidez, Internet etxeko egongelako ordenagailuan erabiltzea, nabigazioaren historiala begiratzea, etxeko ordenagailuaren iragazkiak, erabilera ordutegia... Norberaren aparailuan etengabeko konektibitatea dutenez, **gehienetan gurasoen ia kontrolrik gabe, modu autonomoan** erabil dezakete.



## Gurasoak zenbateraino dauden arduratuta seme-alaben pribatutasunaz eta datu personalen babesaz, IKTen erabileraren festuinguruan.

### 1 Zenbateraino daude kezkatuta?

"Ikaragarria iruditzen zait datu-tarifa jartzea seme-alabei mugikorrean. Gurasok ez dira ezertaz enteratzen. Deabruari atek irekitzen ari zaizkie, eta gainera 200 edo 300 euroko smartphoneekin dabilta" (Heldutasun teknologiko ertaineko Arabako ikastetxeetako irakasleak)



"Kontu handiz ibili gara gomendioak ematen, ordenagailua ondo ikusten den leku batean ipintzeko esan, iragazkiak ipini... Alderdi horiek guztiak zaindu ditugu, baina segidan Internet duten mugikorrek eman dizkiegu, eta hor ez dute trabarik. Lehen ezinezkoa zena, orain egin dezakete. Arauak hankaz gora jarri ditugu" (Guraso elkarten federazioak).

- Beste alde batetik, **ez dugu uste ikastetxean beharrezkoa denik kontrol tresna moduan erabiltzeko**; izan ere, ikastetxeek badituzte telefonoak, eta edozein gorabehera badago, gurasoek eta seme-alabek hitz egiteko erabil daitezke. Seme-alabei mugikorra erabiltzen utzia, gurasoek ez dute kontrolatzea lortzen, kontrakoa baizik, lortzen dena baita **arreta galtzeko beste elementu bat** gehitzea, eta kaltegarria izan daiteke eskola-emaizetarako.

"Inoiz arazo handiagoa izan dugu familiekin ikasleekin baino. Familia batzuk uste dute seme-alabentzat ezinbesteko komunikazio tresna dela telefonoa, guraso biek egiten dutelako lan. Baina ikastetxean badugu telefonoa eta!" (Heldutasun teknologiko baxuko Arabako ikastetxeetako zuzendariak).





## Gurasoak zenbateraino dauden arduratuta seme-alaben pribatutasunaz eta datu personalen babesaz, IKTen erabileraren testuinguruan.

### 2. Nola bideratzen dute kezka?

Hezkuntza komunitateak adierazi du gurasoak kezkatuta daudenean, batez ere bi bide erabiltzen dituztela kezka bideratzeko:



Gurasoen  
kezka nola  
bideratu

#### 1. Kontrol mekanismoak

- a. Gurasoek zenbat eta gehiago jakin... Laguntza emanez eta jarraipena eginez
- b. Gurasoek zenbat eta gutxiago jakin... Neurri murriztaileak eta debekuak ezarriz

#### 2. Guraso elkarteei prestakuntza eskaerak eginez

- Bide nagusia da **kontrol mekanismoak erabiltzea**. Gurasoek bi eratara jokatzen dute **seme-alabak kontrolatzeko**. Gurasoek zenbat eta gehiago ala gutxiago jakin eta erabili IKTak, era batera ala bestera jokatuko dute.
  - Gurasoek **zenbat eta gehiago jakin** IKTei buruz —normalean lanean IKTak erabiltzen dituztelako ikasita—, seme-alabei **laguntzeko eta egiten dutenaren jarraipena egiteko** joera handiagoa izaten dute.



## Gurasoak zenbateraino dauden arduratuta seme-alaben pribatutasunaz eta datu pertsonalen babesaz, IKTen erabileraren testuinguruan.

### 2. Nola bideratzen dute kezka?

"Gaiak dakitenek ondo kontrolatzen dute. Badakite IKTak geratzeko asmoz etorri direla eta seme-alabei erakutsi egin behar dietela ondo erabiltzen. Informatu egiten dira, gehiago parte hartzen dute, baliabideak eskatzen dituzte.... Baina, teknologia horiekin harremanik ez duten gurasoak ere badaude, beldur handia diete eta debekatu egiten dizkiete seme-alabei. Wifiaren kablea poltsan hartuta eramaten dute". (Guraso elkarteen federazioak).

- Baina, IKTei buruz **gutxi dakiten** gurasoek, ordea, joera handiagoa dute **neurri murriztaileak hartzeko edo erabateko debekuak jartzeko**.

"Erabiltzea debekatzen diete. Dena edo ezer ere ez. Seme-alabek galdetzen dutenean ea zergatik ezin duten, gurasoen erantzuna da <<ezetz eta kitto>>. Eta ez zen horrela izan beharko" (Guraso elkarteen federazioak).

- **Beste bide bat da guraso elkarteei prestakuntza eskatzea;** hasiera batean gurasoak erabat blokeatuta daudelako eta ez dakitelako zein neurri hartu eta zein gomendio eman seme-alabei.



## Gurasoak zenbateraino dauden arduratuta seme-alaben pribatutasunaz eta datu pertsonalen babesaz, IKTen erabileraren testuinguruan.

### 2. Nola bideratzen dute kezka?

"Gurasoen elkarreetakook uste dugu gurasoak etengabe ari zaizkigula prestakuntza eskatzen, ulertu nahi dutelako zein diren teknologia berri horiek eta zein sare sozial dauden, eta zer egin behar duten horien erabilera kontrolatzeko" (Gurasoen elkarreak).

"Gurasoak berak bizitakoaren arabera hezten ditu seme-alabak; beraz, nik ez badakit argazkiak manipulatu egin daitezkeenik, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Legea dagoenik... nola irakatsiko diot nik nire seme edo alabari?" (Guraso elkarreen federazioak).

- Guraso elkarreen federazioak bat datoz horretan. Era berean, uste dute azken urteotan **asko hasi dela gurasoen aldetik sare sozialei buruzko eta Interneteko segurtasunari buruzko prestakuntza-eskaera**. Gainera, oso ondo baloratzen da gurasoen parte hartzea ikastaroetan, nahiz eta asko hobetu daitekeen.

"Gurasoek esperimintatu egiten dute ikastaroetan, eta gehiago nahi dute. Urte mordo bat daramat ikastetxeekin lanean eta guraso asko ikusten ditut. Batzuk gaiaren mendean daudela dirudi: buruz jakin behar dute dena honezkero" (Guraso elkarreen federazioak).



## 4. Kapituluua

*Ikastetxeen jarduerak  
pribatutasuna eta datu  
pertsonalak babesteko.*



1. Zein da ikastetxeen politika?
2. Zein elementu daude ondo errotuta?
3. Zein elementu daude oraindik errotu gabe?



## Ikastetxeen jarduerak pribatutasuna eta datu pertsonalak babesteko.

### 1. Zein da ikastetxeen politika?

- EAeko ikastetxeek **gertakari sozial konplexu bati egin behar diote aurre, guztiz gertakari berria da eta etengabe aldatzen ari dena**. Gertakariaren ezaugarriak dira, **batetik, oso lotuta dagoela ikasleen pribatutasunaren eta datu pertsonalen babesarekin; eta, bestetik, IKTen erabilera oso zabalduta dagoela**, bai eskola barruko testuinguruan bai kanpokoan. Baina gertakari horrek berak **zailtasun asko dakarzkie** ikastetxeei, batez ere pribatutasunerako eta datu babeserako politika integrala ezartzeko orduan, gerta daitezken gorabehera guztiei erantzun egokia emateko balio behar duelako.
- Testuingurua ikusita, zuzendarien, irakasleen eta guraso elkarten federazioen pertzepzioa da **pribatutasun eta datu babesaren politika erabat erreaktiboa dela**. Pertzepzio horren atzean dauden arrazoiak honakoak dira...
  - **"Zerbait gertatu arte ez dugu ezer egiten"**. (Guraso elkarten federazioak)
  - **"Adabakiak jartzen dira"**. (Heldutasun teknologiko ertaineko Bizkaiko irakasleak)
  - **"Arazoak sortu ahala konpontzen dira"**. (Heldutasun teknologiko altuko Gipuzkoako ikastetxeetako zuzendariak).
  - **"Arautegi bat dugu, baina gauzak gertatu ahala berritu egiten dugu"**. (Heldutasun teknologiko ertaineko Bizkaiko ikastetxeetako irakasleak)



## Ikastetxeen jarduerak pribatutasuna eta datu pertsonalak babesteko.

### 1. Zein da ikastetxeen politika?

- hezkuntza komunitatearen diskurtsoak agerian uste du batez ere **2 direla ikastetxeek izan ohi dituzten “problematikak”** pribatutasunaren eta IKTen erabileraren ikuspuntutik.

- **Internet bidezko jazarpena.**
- **Irudien grabazioa eta zabalkundea.**



➤ **Internet bidezko jazarpena** edo ziberjazarpena:

- **Irainak eta / edo mehatxuak** WhatsApp edo sare sozialen bidez.



"Jazarpena jasaten zuen neska bat izan genuen. Edozer esaten zioten. Arazo nahikoa larria izan zen. Gertatu izan dira posta elektronikoko bidezko, Twitter bidezko... jazarpenak" (Heldutasun teknologiko baxuko Bizkaiko ikastetxeetako irakasleak)

- Zenbaitetan, **identitatea ordezkatuz edo identitate faltsuak erabiliz.**



"Benetan gauza makiavelikoak ikusi ditut. Lehen hezkuntzatik baztertuta zeukaten neska baten ikaskideek ustez neskatoarekin maiteminduta zegoen mutik baten profila sortu zuten. Pentsa dezakezu zelako barreak egiten zituzten denek neskak zerbait esaten zuenean..." (Guraso elkarten federazioak)



## Ikastetxeen jarduerak pribatutasuna eta datu pertsonalak babesteko.

### 1. Zein da ikastetxeen politika?

#### ➤ Irudien grabazioa eta zabalkundea:

- Argazkiak ateratzea eta bideoak grabatzea dutxetan edo gimnasioetan.
- Baimenik gabe sare sozialetan argazkiak jartzea edo bidaltzea.
- Argazkiak manipulatzeko eta sare sozialetan jartzea edo Whatsapp bidez bidaltzea.
- Irakasleak grabatzea.



"Gogoratzen dut batzuk argazki bat atera zutela urtebetetze batean bideo-kontsola eramangarri batekin. Argazkiarekin jolastu zuten, aplikazio batzuekin txanoak ipini zizkieten..., gero hasi ziren bata besteari argazkia pasatzen..."  
(Heldutasun teknologiko baxuko Arabako ikastetxeetako zuzendariak)

"Irakasleak ere grabatu izan dituzte. Ea ba, Eusko Jaurlaritzaren ordenagailuek kamera dute. Ordenagailua ematen diezunean burutik `pasatu ere ez zaizu egiten argazkiak aterako dituztenik, baina pantailari buelta eman eta atera egiten dituzte" (Heldutasun teknologiko altuko Gipuzkoako ikastetxeetako irakasleak)

- Azpimarratu behar dugu **aparteko kasuak direla eta oso noizean behin gertatzen direla**, eta askotan **eskolako testuingurutik kanpo gertatzen dira**. Hala eta guztiz ere, halakoak gertatzen direnean, gatazkak larriak izaten dira tartean gurasoak eta ikastetxeak egoten direlako, eta ikastetxean bertan ere larritasuna sortzen du. **Horrelako gertaeren ondorioz lortzen da zerbait egitea** eta halakoak gehiago ez gertatzeko konponbideak bilatzen saiatzea.

"Grabazioak oso noizean behin gertatzen da, urtean behin, beti pertsona berak dira, eta pertsona horiekin lan egiten dugu..." (Heldutasun teknologiko altuko Gipuzkoako ikastetxeetako zuzendariak).




## Ikastetxeen jarduerak pribatutasuna eta datu pertsonalak babesteko.

### 2. Zein elementu daude ondo errotuta?

- Ikastetxeen **eguneroko funtzionamenduan** badira hainbat alderdi araututa daudenak:
  - **Baimena eskatzea ikasleei argazkiak ateratzeko**, argazkiak web euskarrietan edo katalogoetan... erabiltzeko asmoa badago.

*"Gauza puntaletarako berriaz eskatzen zaie. Gainontzeko gauzetarako, matrikulan eskatzen zaie. Mendira joateko edo bidaiak egiteko, baimena matrikulan eskatzen diegu."* (Heldutasun teknologiko altuko Gipuzkoako ikastetxeetako zuzendariak)
  - **Notak ikusteko** pasahitza behar izatea.

*"Paperezko buletin bana ematen zaie eta gurasoek intranet bidez ere eskura dezakete, eta han dituzte. Tarteko bidea da, papera kentzen joareko eta dena elektronikoa izateko. Gurasoek badakite seguruagoa dela, pasahitzarekin egiten dela..."* (Heldutasun teknologiko baxuko Arabako ikastetxeetako zuzendariak)
  -  Ikasleen datu sentisibleak dituzten **dokumentuak ondo gordetzea** (legezko dokumentuak, medikuarenak ...)

*"Osasuna, delituak, bekadunak... oso-oso babestuta dago. Umeek zailtasunen bat badute ere bai. Irakasleek ere ez dute horien berri".* (Guraso elkartearen federazioak)
  - Irakasleen **datu pertsonalak gordetzea**.

*"Ikastetxeak gure datu batzuk ditu. Baina horrek ez gaitu kezkatzen. Ondo zainduta daude"* (Heldutasun teknologiko ertaineko Bizkaiko ikastetxeetako irakasleak)





## Ikastetxeen jarduerak pribatutasuna eta datu pertsonalak babesteko.

### 2. Zein elementu daude ondo errotuta?

- Ikastetxeko ekipo informatikoetako **nabigazio-iragazkiak**, Hezkuntza Sailak ezarritakoak.



"Hemen Eusko Jaurlaritzak iragazki batzuk jarri ditu. Badakit ezin dutela Youtuben sartu, baina ez dut inor ikusi Facebooken edo Twitterren sartzen" (Heldutasun teknologiko ertaineko Bizkaiko ikastetxeetako zuzendariak)

- Ikasle bakoitzaren **identifikazio kodea** ordenagailuan sartzeko.

"Ikasleei ordenagailu bana esleitzen zaie, identifikazio kodearekin eta gakoarekin".  
(Heldutasun teknologiko altuko Gipuzkoako ikastetxeetako zuzendariak)



- **Pasahitzak eta segurtasun sistemak** honakoak kudeatzeko; koaderno digitalak, ikasleen, irakasleen era gurasoen arteko elkarreraginerako gunee birtualak, ikastetxeko informazioaren atzipena (jarduera egutegia, jardunaldiak, ...)

"Alexian urtero aldatu behar izaten dituzte pasahitzak nahitaez. Beste sistema batzuk uzten digute pasahitzak mantentzen; hemen ez, ordea. Gainera ezin dituzu bi kontu izan helbide elektroniko berari atxikita, iruzurrezko erabilerarik ez dadin egon" (Heldutasun teknologiko baxuko Arabako ikastetxeetako zuzendariak)

- **Mugiorra erabiltzea debekatzea** ikastetxean.

"Jolas orduetan erabil ditzakete, baina eskola orduetan erabat debekatuta daude. Ezin dute atera, ez eta erakusteko ere" (Heldutasun teknologiko ertaineko Gipuzkoako ikastetxeetako irakasleak).



"Legez ezin dira mugikorrek eraman. Hasiera batean ez dute mugikorrik erabiltzeko baimenik, eta are gutxiago mugikorrek gelan jotzeko" (Heldutasun teknologiko altuko Bizkaiko ikastetxeetako irakasleak)



## Ikastetxeen jarduerak pribatutasuna eta datu pertsonalak babesteko.

### 2. Zein elementu daude ondo errotuta?

- Beraz, ikusi dugu ikastetxeek legezko eskakizunei edo arazo sozialei erantzuteko esku hartu beha izan dutela, eta horren ondorioz IKTak erabiltzeko eta datu pertsonalak atzitzeko zenbait arau finkatu dira.



#### **FINKATUTAKO POLITIKA:**

**IKT-AK ERABILTZEKO ETA DATU PERTSONALAK  
ATZITZEKO ARAUAK SORTZEA  
IKASTETXEETAN**


**KONTUHARTZAILETZA**



## Ikastetxeen jarduerak pribatutasuna eta datu pertsonalak babesteko.

### 3. Zein elementu daude oraindik errotu gabe?

- Kontrara, zuzendarien eta irakasleen diskurtsoaren arabera, **oraindik ez dira finkatu ikasleek IKTen erabilera egokiari buruz sentsibilizatzeko balio duten mekanismoak**, hain zuzen ere, horien ahalmenez baliatuz, pribatutasunerako eta datu pertsonalen babeserako eskubide bermatu ahal izateko.
- Azken finean, kontua da **prebentzio politika bat finkatzea**, eta balio izatea IKTen erabilera egokiaren gainean sentsibilizatzeko bai eskolaren testuinguruan bai kanpoan.



#### **FINKATU GABEKO POLITIKA:**

**DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA  
PRIBATUTASUNeko ESKUBIDEARI BURUZKO  
ETA IKT-AK ERABILTZEARI BURUZKO  
SENTSIBILIZAZIO NEURRIAK EZARTZEA**

#### **PREBENTZIOA**




## Ikastetxeen jarduerak pribatutasuna eta datu pertsonalak babesteko.

### 3. Zein elementu daude oraindik errotu gabe?

- Aztertu nahi badugu zergatik dioten zuzendariak eta irakasleek gaur egun oraindik sentsibilizazioa eta prebentzioa **ikastetxeetan konpondu gabeko arazoa dela**, honako arrazoiak topa ditzakegu uste horren atzean:

- **Sentsibilizazio lan planifikatu eta etengabearen falta.** Horregatik, askotan borondate onari esker egiten dira gauzak eta ez jarraibide eta kontsigna argiak eta estandarizatuak daudelako.

*"Ez daukat gogoan gai honi buruzko ezer egin denik. Ni tutorea nintzela kanpaina bat egon zen, jazarpenari buruzko bideo batzuk jarri genizkien haurrei..."  
(Heldutasun teknologiko ertaineko Bizkaiko ikastetxeetako zuzendariak)*



- **Sentsibilizazioaren arloan egiten diren ekimenetan homogeneotasunaren falta.** Horren ondorioz, **ezberdintasun handiak egoten dira ikastetxeen artean**, eta ikastetxe bakoitzaren baitan ere bai, irakasle bakoitzaren interesaren eta inplikazioaren arabera.

*"Zuzendaritza taldea edo taldearen tutorea gaiaren gainean sentsibilizatuta dagoen ala ez, horren arabera landuko edo ez da landuko datuen babesa. Hain dute lanerako eremu zabala..." (Guraso elkarteen federazioak)*



## Ikastetxeen jarduerak pribatutasuna eta datu pertsonalak babesteko.

### 3. Zein elementu daude oraindik errotu gabe?

- **Era honetako sentsibilizazio edukiak bideratzeko modu asko daude curriculumean:** tutoretzetan, informatika eskoletan, herritartasunerako ikasgaietan, Orientabide Pedagogikoko Sailaren bitartez, hainbat ikasgaitan zeharka jardunez, elkarbitza planean, gurasoentzako prestakuntza saioen bidez...

*"DBHko 1. mailakoekin hasten gara. Lehen Etikako ikasgaietan lantzen genuen, adibideen bidez. Baina, orain tutoretzetan egiten dugu. Urtean bi saio egiten ditugu, enpresa baten bidez..." (Heldutasun teknologiko ertaineko Arabako ikastetxeetako irakasleak)*

- **Irakasleentzako jarraibide argiak falta dira.** Horrek ondorioz, irakasle bakoitzaren interesaren eta borondatearen gain geratzen da lan hau. *"Bakoitzak nahi duenean eta nahi duen moduan. Irakaslearen arabera"*.

*"Irakasleek esaten duten ala ez zer egin... horri buruz pentsatzen dut irakasle bakoitzak erabakitzen duela; ez dago horri buruzko jarraibide argirik" (Heldutasun teknologiko ertaineko Bizkaiko ikastetxeetako zuzendariak)*





## Ikastetxeen jarduerak pribatutasuna eta datu pertsonalak babesteko.

### 3. Zein elementu daude oraindik errotu gabe?

- Azken finean, irakasle gehienek pertzepzioa da prebentzio lana honelakoa dela:



#### **PREBENTZIO LANA ....**

- **"Bat-batekoa"**
- **"Jarraibiderik gabea"**
- **"Borondate onean oinarritua"**
- **"Irakaslearen arabera"**

**... DESEGITURATUA ETA SENEZKOA**



## Ikastetxeen jarduerak pribatutasuna eta datu pertsonalak babesteko.

### 3. Zein elementu daude oraindik errotu gabe?

- Kontuan hartzen badugu ikastetxe bakoitzaren heldutasun teknologikoa, nabarmendu dezakegu **heldutasun teknologiko altua duten ikastetxeak hobeto ezagutzen dutela IKT-Pribatutasuna binomioak osatutako errealitatea, eta indar handiago jartzen dutela sentsibilizazioaren eta prebentzioaren dimentsioan.**

*"Poliziarrena egitea egokitu zaigu, baina ez dut uste hori denik garrantzitsuena. Garrantzitsuagoa da sentsibilizazio lana, bertan egotea, asko hitz egitea haiekin... (Heldutasun teknologiko altuko Gipuzkoako ikastetxeetako zuzendariak)*

- Esan behar da **IKTak ikastetxeko esparru askotan** (kudeaketa, komunikazioa, irakaskuntza, ...) **sartzeko apustua egiten dutenak** hobeto jabetzen direla apustu horrek dakartzan onura eta arriskuez. Eta horrek erakusten du halakoetan:

- Halakoetan **sentsibilizazioa curriculumena hobeto txertatuta egoten dela,** era planifikatuago eta koordinatuagoan.

*"Gai batzuk Herritartasunerako Hezkuntzan lantzen ditugu, informatikako irakasleekin koordinatuta, denok gauza bera ez errepikatzeko. Herritartasunerako Hezkuntzan segurtasunaz eta pertsonen arteko errespetuaz hitz egiten dugu, baina teknologia berriei begira" (Heldutasun teknologiko altuko Gipuzkoako ikastetxeetako zuzendariak)*

*"Nire ikastetxean ez dago sentsibilizazioarekiko begirunerik. Edozein moduz gabiltza, eta arazoak daudenean bakarrik egiten dugu zerbait" (Heldutasun teknologiko ertaineko Arabako ikastetxeetako irakasleak)*



## Ikastetxeen jarduerak pribatutasuna eta datu pertsonalak babesteko.

### 3. Zein elementu daude oraindik errotu gabe?

- **Irakasleentzat ikasgela toki egokia da** Interneten erabilera egokiari eta pribatutasuna errespetatzeari buruzko **aholkuak emateko**.

*"Nik uste dut sentsibilizatzea gure irakaskuntza lanaren zati bat dela; sareko materialak baimenekin eta lizentziekin erabili behar direla erakusten diegun bezala. Azken aldian argazkiei eta lineako elkarrizketei buruzko kontzientziazio hitzaldiak ematen ari gara..." (Heldutasun teknologiko altuko Bizkaiko ikastetxeetako irakasleak)*

- Azken finean heldutasun teknologiko altuko ikastetxeetan **IKT-Pribatutasuna binomioari ekiteko abiapuntua ez da beldurra izaten, ezagutza baizik**.

*"Guk ez dugu sentsibilizazio lanik egin behar; konponbidearen zati bat, nire ustez, da gaiari buruz ondo dakien baten bat ekartzea ikasleei hitz egiteko" (Heldutasun teknologiko ertaineko Arabako ikastetxeetako irakasleak)*





## 5. Kapituluua

LHko seigarren mailako eta DBHko lehenengo mailako irakasleen rola pribatutasunaren eta datu pertsonalak babestearen aurrean, IKTen erabileraren testuinguruan.



1. *IKTak gela barruan sartu dira?*
2. *Nola ikusten dira IKTak aukera pedagogiko moduan?*
3. *Zein izan behar da irakasleen rola IKTekiko eta pribatutasunarekiko?*



## LHko seigarren mailako eta DBHko lehenengo mailako irakasleen rola pribatutasunaren eta datu personalak babestearen aurrean, IKTen erabileraren testuinguruan.

### 1. IKTak gela barruan sartu dira?

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarentzat **IKTak geletan sartzea lehentasunezko kontua da**, Eskola 2.0 Programaren barruan. Baina zein da irakasleek honetaz duten pertzepzioa? Irakasleek esandakoa kontuan hartuta, honako ideiak ondoriozta ditzakegu:
  - EAEko ikastetxeetako geletan **etengabe sartuz joan dira** eginkizun pedagogikoetarako erabiltzen dituzten **hainbat tresna (IKTak)**.



"Google, Drive eta Docs-eko aplikazio guztiak, Microsoft-eko arruntenak, software librekoak, matematiketarako algebran espezializatutako softwarea ... erabiltzen ditugu... espezialitate bakoitzak, ikasgai bakoitzak berariazko tresna bat du ah hoc" (Heldutasun teknologiko altuko Gipuzkoako ikastetxeetako zuzendariak)

"Lehen hezkuntzan arbel digitalak erabiltzen dituzte jada. Gainera, informatikako gelak dituzte, testu tratamendurako programak, kalkulu orriak, datu baseak... Horiez gain, Google Earth, AUTOCAD, gimnasiako programak, blog batzuk... ere erabiltzen ditugu" (Heldutasun teknologiko ertaineko Arabako ikastetxeetako irakasleak)



**LHko seigarren mailako eta DBHko lehenengo mailako irakasleen rola pribatutasunaren eta datu personalak babestearen aurrean, IKTen erabileraren testuinguruan.**

## 1. IKTak gela barruan sartu dira?

- Esan behar da **IKTak gelan zenbateraino sartu maiz** ikastetxeko **zuzendaritza taldearen borondatearen eta jarreraren eta irakasleen interesaren eta motibazioaren arabera** erabakia dela. Edozelan ere, **ikastetxeen artean ezberdintasun handiak daude**, eta ikastetxe bakoitzean bertan ere bai; eta gerta daiteke irakasle batek IKTak erabiltzea gelan, eta ikasgai eta maila bereko beste irakasle bat egotea eta hark ez erabiltzea halakorik bere gelan.

*"Bada, esan dezakegu IKTak gelan sartzeko kontu horretan oraindik haur hezkuntzan bezala gaudela; eta gero bakoitzaren eta bere prestakuntzaren arabera, esparru izugarri zabala delako." (Heldutasun teknologiko ertaineko Gipuzkoako ikastetxeetako irakasleak)*

*"Irakasleen artean erreparoa handia dago kontu honekin; izan ere, irakasleak konturatzen dira ikasgelan teknologia berriak sartzea eztabaidagai edo koska berri bat dela, norberak kontrolatzen duen toki batean sartu eta orain arte egiten zenuena berraztertzea behartzen zaituena" (Heldutasun teknologiko altuko Bizkaiko ikastetxeetako irakasleak)*



**LHko seigarren mailako eta DBHko lehenengo mailako irakasleen rola pribatutasunaren eta datu personalak babestearen aurrean, IKTen erabileraren testuinguruan.**

**1. IKTak gela barruan sartu dira?**

- IKTak gelan sartzea gehien baldintzatzen duten faktoreetako bat da **irakasleen adina eta Internetez duten ezagutza**. Beste faktore bat da, aurrekoaren osagarri, irakasleek zenbaterainoko motibazioa duten ezagutza eta trebetasun berriak ikasteko.

*"Dena da denbora kontua, eta zein ikasgai eman behar duzun, pazientzia. Irakasleen mailak ere badu eragina, gatazka-mailak..." (Heldutasun teknologiko ertaineko Gipuzkoako ikastetxeetako irakasleak)*

*"Ez dago pertsona bat web orriak ikertzen edo ikusten zein tresna dauden ikasgai jakin bateko gai bat edo beste lantzeko. Irakasleak berak egiten du ikerketa"*  
(Heldutasun teknologiko ertaineko Arabako ikastetxeetako irakasleak)



*"Guk hirugarren mailatik daukagu arbel digitalak eta horri buruzko prestakuntza jaso dugu. Jendeak nahikotxo kontrolatzen du. Baina, badira zenbait lankide arbelekin burrukan ari direnak eta ezinean (Heldutasun teknologiko baxuko Bizkaiko ikastetxeetako irakasleak)*



**LHko seigarren mailako eta DBHko lehenengo mailako irakasleen rola pribatutasunaren eta datu personalak babestearen aurrean, IKTen erabileraren testuinguruan.**

### 1. IKTak gela barruan sartu dira?

- Zehatz-mehatz honako tresnak erabiltzen dira:

- MOODLE.
- GOOGLE DOCS.
- GOOGLE POST.
- GOOGLE EARTH.
- GOOGLE APPS.
- GMAIL.
- YOUTUBE.
- BLOGAK.
- WIKIAK.
- PPT.
- PREZI.
- INSIDE.
- WEB QUEST
- ARBEL DIGITALAK.
- MUGIKORRAK.
- ...





**LHko seigarren mailako eta DBHko lehenengo mailako irakasleen rola pribatutasunaren eta datu personalak babestearen aurrean, IKTen erabileraren testuinguruan.**

## 2. Nola ikusten dira IKTak aukera pedagogiko moduan?

- El discurso del profesorado ante las TICs como alternativa pedagógica evidencia la **ausencia de consenso a este respecto**. Taldeko bileretan aldeko nahiz kontrako iritziak jaso ditugu:

### ➤ Alde positiboa dira:

1. Berrikuntza pedagogikoaren aldeko apustua izan daitekeela.
2. Informazioa eta baliabide pedagogiko ugari eskuratzeko berehalakotasuna.
3. Ikasleen arreta erakartzeko eta ikasleak motibatuzeko gaitasuna.
4. Ikusizko material pedagogikoa eta material praktikoa eskuratzeko erraztasuna.
5. Gaitasun teknologikoak ikasgelan lantzeko aukera, ez bakarrik aisialdiko testuinguruan.
6. Ikastetxea gizartearen koordinatu berean kokatzea eta antzinako gordetegi izateari.


### AUKERETATIK ABIATUTA ERAIKITAKO DISKURTSOA



**LHko seigarren mailako eta DBHko lehenengo mailako irakasleen rola pribatutasunaren eta datu personalak babestearen aurrean, IKTen erabileraren testuinguruan.**

## 2. Nola ikusten dira IKTak aukera pedagogiko moduan?

### ➤ Alde negatiboak dira:

- 
1. IKTen balio pedagogikoen gainean zalantzak daude.
  2. Itxurari edukiari baino garrantzi handiago ematen zaiola.
  3. Eskolak mantsoago ematen direla, eta horrek helburu pedagogikoak betetzea zailtzen duela.
  4. Material pedagogikoak prestatzeko ahalegin berezia egin beharra dagoela ez dagoelako alde zurretik prestatutako unitate didaktikorik.
  5. Alfabetatu gabeko irakasleei ezinezkoa egiten zaiela IKTak barneratzea.
  6. Maiz "legea urratu" beharra egoten dela hainbat tresna erabiltzeko, esate baterako, *gmail*-a.

**ZAILTASUNETATIK ABIATUTA ERAIKITAKO DISKURTSOA**



**LHko seigarren mailako eta DBHko lehenengo mailako irakasleen rola pribatutasunaren eta datu personalak babestearen aurrean, IKTen erabileraren testuinguruan.**

## 2. Nola ikusten dira IKTak aukera pedagogiko moduan?

- **Heldutasun teknologiko handiko ikastetxeetan** IKTak gelan sartzeak dakartzan **alderdi positiboak azpimarratzen dituen diskurtsoa da nagusi**. Gainontzekoetan, ordea, irakasleen diskurtsoak aldeko zein kontrako elementuak ditu.
- Heldutasun teknologiko altua duten zentroek joera handia dute...

➤ **Tresna eta baliabide teknologiko kopuru handiagoa erabiltzen dute eta konplexuagoak (Google Apps).**

*"Erabaki genuen Google Apps-en aldeko apustua egitea. Kontu korrante propioa dugu Googlen, eta ikastetxeko kontu guztiak administratzen laguntzen digu. Arazo bat da ez jakitea ikasleek kontu korrantea izan dezaketela ala ez; baina, Google Apps-en gure kontrolpean dago, legez" (Heldutasun teknologiko altuko Bizkaiko ikastetxeetako irakasleak)*

*"Google, Sites, Doc... aplikazio guztiak erabiltzen ditugu, blogei buruzko Wix aplikazioa, Moddle, Youtube kanal pribatu batzuk..." (Heldutasun teknologiko altuko Gipuzkoako ikastetxeetako irakasleak)*





**LHko seigarren mailako eta DBHko lehenengo mailako irakasleen rola pribatutasunaren eta datu personalak babestearen aurrean, IKTen erabileraren testuinguruan.**

## 2. Nola ikusten dira IKTak aukera pedagogiko moduan?

- Irakasle **geletan IKTen erabilerarekin inplikaturik dauden irakasle gehiago izaten dituzte**, IKTen onurak barneratuta dituztelako.

*"Geure buruei helburu moduan jarri genien barruko erabilerako gauzak erabiltzea, esate baterako, posta elektronikoa eta egutegia. Gauza errazak, edonork erabiltzeko modukoak, bizitza errazagoa egiten digutela ikusteko. (Heldutasun teknologiko altuko Bizkaiko ikastetxeetako irakasleak)*

25 Ways Google Can Help You  
Become A Better Teacher

Teach™-to-g1.com



*"Gu mugikorraren erabilera pedagogikoa bultzatzen ari gara. Ondo ikusten dugu. Adibidez, aurreko batean irakasle batek esan zidan ez zela beharrezkoa hiztegiak erostea, nahikoa dela ikasgelara mugikorrak eramatea eta han bilatzea topatu behar duten hitza" (Heldutasun teknologiko altuko Gipuzkoako ikastetxeetako irakasleak)*

- Gaiaren aldeko, eta epe luzerako, **apustu garbia egiten duten zuzendaritza taldeak izaten dituzte.**

*"Badira urte batzuk, eta hau laugarren urtea dut zuzendaritzan, teknologia berrien erabateko berregituraketa egin dugula. Ez bakarrik ordenagailu eramangarriak sartu ditugulako, lineako baliabide eta material didaktiko gehiago erabiltzeagatik baizik, adibidez, Moodle..." (Heldutasun teknologiko altuko Gipuzkoako ikastetxeetako zuzendariak)*



**LHko seigarren mailako eta DBHko lehenengo mailako irakasleen rola pribatutasunaren eta datu personalak babestearen aurrean, IKTen erabileraren testuinguruan.**

### 3. Zein izan behar da irakasleen rola IKTekiko eta pribatutasunarekiko?

- Lehen hezkuntzako 6. mailako eta bigarren hezkuntzako 1. mailako irakasleek aztertzen dutenean ea zein rol duten IKTeak eta pribatutasuna binomioaren arloan, bi multzo nagusi bereizten dituzte:

#### **ORIENTABIDEA / KONTZIENTZIAZIOA**

- *Informatzea.*
- *Aholkatzea.*
- *Zalantzak argitzea.*
- *Adibideak jartzea.*
- *Benetako eta gertuko kasuez baliatzea.*

#### **ZAINZA / KONTROLA**

- *Arauk gogoraraztea.*
- *Arauk betearaztea.*
  - *Zigortzea.*



**LHko seigarren mailako eta DBHko lehenengo mailako irakasleen rola pribatutasunaren eta datu pertsonalak babestearen aurrean, IKTen erabileraren testuinguruan.**

### 3. Zein izan behar da irakasleen rola IKTekiko eta pribatutasunarekiko?

- Irakasleen pertzepzioa da orain arte **zaintza / kontrol eginkizuna burutu dutela, eta modu sistematikoan egin dutela:**

- **Mugikorrak konfiskatuz, ikastetxean erabiliz gero.**

*"Gutziz debekatuta dago ikasgelan mugikorra piztuta edukitzea. Baten batek piztuta badauka, hartu egiten diogu, itzalarazten diogu, konfiskatu eta handik aste batzuetara jaso egiten dute" (Heldutasun teknologiko ertaineko Arabako ikastetxeetako irakasleak)*

- **Ahaleginak eginez ikastetxeko ordenagailuak era desegokian ez ditzaten erabili (posta elektronikoko kontu pertsonalak, sare sozialak...)**

*"Badakizu, kontrolatzen ibili behar duzu. Irakasleak informatikako gelan pantailak begiratzen ibili behar du. Ez dago beste modurik" (Heldutasun teknologiko ertaineko Bizkaiko ikastetxeetako zuzendariak)*

*"Adi egotea, arauak betearaztea, ondo erabiltzea materialak, informatikako gela, pantaila digitala jartzen denean..." (Heldutasun teknologiko ertaineko Bizkaiko ikastetxeetako irakasleak)*



**LHko seigarren mailako eta DBHko lehenengo mailako irakasleen rola pribatutasunaren eta datu personalak babestearen aurrean, IKTen erabileraren testuinguruan.**

### 3. Zein izan behar da irakasleen rola IKTekiko eta pribatutasunarekiko?

- Baina beste berezitasun bat antzeman da: **irakasle guztiek ez dutela kontrol lana egiten**, hau da, *“badirela irakasle batzuk polizarena egiten dutenak, eta beste batzuk arazorik nahi ez dutenak eta ezikusiaarena egiten dutenak”*.

*"Denetik dago. Batzuk berehala onartzen dute horrela jokatu behar dutela eta mugikorra konfiskatu; beste batzuk <<nahiz eta ikusi, ez ikusi plantak egiten dituzte>>; beste zenbaitek benetan ikusi ere ez dute egiten, ilargian daude eta ez dute ezer ikusten"... (Heldutasun teknologiko altuko Gipuzkoako ikastetxeetako zuzendariak)*

- Kontrara, **haien kabuz orientabide / kontzientziario lana egiten saiatu diren irakasleak** traba batekin egin dute topo, **konturatu direlako ez dutela tresnarik** zentzuak agindutakoaz haratago joateko.

*"Dakiguna dakigu adinagatik eta zentzua dugulako, edo adin horretako seme-alabak ditugulako; eta badakigu arazoak nolakoak izan daitezkeen. Baina, hala ere, zentzuak agintzen digu" (Heldutasun teknologiko ertaineko Bizkaiko ikastetxeetako zuzendariak)*



**LHko seigarren mailako eta DBHko lehenengo mailako irakasleen rola pribatutasunaren eta datu personalak babestearen aurrean, IKTen erabileraren testuinguruan.**

### 3. Zein izan behar da irakasleen rola IKTekiko eta pribatutasunarekiko?

- Gainera, nahi ala ez nahi, **hirugarren** eginkizun osagarri bat ere burutu behar izaten dute, arazo edo gatazka bat gertatu izan denean eta ikastetxeko ikasleak tartean egon direnean: **Bitartekotza gurasoekin.**

*"Kontua zen mehatxu anonimoak egin zituztela. Gurasoek ez zekiten nora jo eta ikastetxera etorri ziren. Denak elkartu behar izan genituen. Gero guraso batek salaketa bat jarri zuen delitua zelako, baina ez zen bukaeraraino heldu, neskato batek onartu egin zuelako. Bitartekari lana egiten dugu, bestela gurasoei bide judiziala baino ez zaie geratzen" (Heldutasun teknologiko ertaineko Gipuzkoako ikastetxeetako irakasleak)*

- Azpimarratu behar dugu irakasleek ez dutela horrelako gorabeherak kudeatzeko tresnarik; eta gurasoek ere ez dutenez, **ikastetxera jotzeko joera dute arazoa konpontzeko laguntza eske, nahiz eta eskolaz kanpoko gertakariak izan.**

*"Normalean ikastetxean ez da halakorik gertatzen. Ikastetxetik kanpo gertatzen dira. Orduan, kontuan hartu behar da Ikasleen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Dekretuak xedatzen duela ikastetxetik kanpoko portaerak zigortu egingo direla, ikastetxeko elkarbizitzari kalte egiten badiote. Ikastetxe batzuk uste dute gauza bat ikastetxetik kanpo gertu bada ere, ikastetxeak esku hartu behar duela. Beste ikastetxe batzuk, ordea, ez" (Guraso elkarten federazioak)*



**LHko seigarren mailako eta DBHko lehenengo mailako irakasleen rola pribatutasunaren eta datu personalak babestearen aurrean, IKTen erabileraren testuinguruan.**

### 3. Zein izan behar da irakasleen rola IKTekiko eta pribatutasunarekiko?

- Baina, oro har, denak bat datoz esatean etorkizunari begira **beharrezkoa dela irakasleen eginkizunen hurrenkera aldatzea, hau da,**

**BATEZ ERE IZATEA ORIENTABIDE / KONTZIENTZIAZIO ERAGILEAK**

**+**

**BEHIN EDO BEHIN IZATEA ZAINZTA ETA KONTROL ERAGILEAK**



**LHko seigarren mailako eta DBHko lehenengo mailako irakasleen rola pribatutasunaren eta datu personalak babestearen aurrean, IKTen erabileraren testuinguruan.**

### 3. Zein izan behar da irakasleen rola IKTekiko eta pribatutasunarekiko?

- Baina, irakasleek argi ikusten dute rol hori behar bezala betetzeko, batetik, **gurasoek jarrera aldatu beharko dutela; eta bestetik, hainbat zailtasuni egin beharko dietela aurre:**

➤ Gurasoei dagokienez, esan behar da **ardura handiagoa hartu behar dutela seme-alaben hezkuntzan**, irakasleen lana eraginkorragoa izatea nahi bada. Horrek esan nahi du:

- IKTen balioak irakatsi behar dietela, eta arriskuak ere bai.

*"Etxean gomendioak eta azalpenak eman behar dizkiete; gero guk lagundu ahal izateko. Nola erabili azaltzea daukate. Gurasoek jakin egin behar dute zer gertatu ahal zaien seme-alabei WhatsAppa behar bezala erabili ezean" (Heldutasun teknologiko ertaineko Bizkaiko ikastetxeetako irakasleak)*

- IKTak erabiltzeko jarraibideak ezarri behar dituztela, eta horien jarraipena egin.

*"Badago araudi bat, baina beste batzuen antzera, ez da betetzen. Eta urratzen lehenak gurasoak dira, ez dietelako utzi behar aldean eramaten; baina uste dute utzita seme-alaben asaldurak eta haserreak baretuko dituztela" Heldutasun teknologiko ertaineko Arabako ikastetxeetako irakasleak)*



**LHko seigarren mailako eta DBHko lehenengo mailako irakasleen rola pribatutasunaren eta datu personalak babestearen aurrean, IKTen erabileraren testuinguruan.**

### 3. Zein izan behar da irakasleen rola IKTekiko eta pribatutasunarekiko?

➤ Bestetik, **irakasleek hainbat zailtasun antzeman dituzte** rola behar bezala bete ahal izateko:

- **Ezagutza falta zaiela**, eta prestakuntza ere bai, orientabide / kontzientziazio lana behar bezala burutzeko. Horri gehitu behar zaio "akatsak" egiteari dioten beldurraren eragina.

*"Uste dugu ez gaudela prestatuta. Maiz hanka sartuz egin dugu egin duguna. Hobe litzateke guk egin beharrean, aditu bat etorriko balitz. Pozik hartuko genuke"*  
(Heldutasun teknologiko altuko Gipuzkoako ikastetxeetako irakasleak)

- Gehienek **ez dakitela zein material edo unitate didaktiko erabil ditzaketen horretarako**. Bakar-bakarrik IKTetako edo informatikako irakasleek aipatu dituzte materialak eskuratzeko iturriak direla KontuzDatos eta PantallasAmigas. Irakasle bakanen batek erabili izan du beste honako materiala: "Erregistratu, sartu, baja eman. Babestu zure pribatutasuna eta kontrolatu zure datuak. Irakasleentzako baliabidea".

*"Niri KontuzDatos alarmista samarra iruditzen zait, nahikoa malgu jokatzen dudalako IKTen erabileraren arloan, baina nahikoa ondo daude 6. mailan egoteko. <<PantallasAmigas>> ez da hain alarmista eta alde publiko zabalagoa du pribatua baino".* (Heldutasun teknologiko ertaineko Bizkaiko ikastetxeetako irakasleak)





**LHko seigarren mailako eta DBHko lehenengo mailako irakasleen rola pribatutasunaren eta datu personalak babestearen aurrean, IKTen erabileraren testuinguruan.**

### 3. Zein izan behar da irakasleen rola IKTekiko eta pribatutasunarekiko?

- Uste dutela **ziberjazarpenaren protokoloa** dela eskura duten tresna bakarra IKTek eta pribatutasunak elkarri eragiten dioten kasuetan erabiltzeko modukoa. Horregatik, "defentsa-mekanismo" moduan erabiltzen dute.

*"Uste dut arazo bat dela niretzat guraso edo ikasleren bat etortzea niregana datu babesari buruzko salaketa bat egitera, eta nik jarri behar badut protokoloa martxan, ikerketa egin, aldeei entzun, ikuskaritzara bidali..." (Heldutasun teknologiko ertaineko Bizkaiko ikastetxeetako zuzendariak)*



- Zenbaitetan **sentitzen direla era askotako eginkizunak burutu behar dituztelako, eta gero eta gehiago: irakasle, psikologo, aholkulari, prestatzaile, era guztietako eremutako aditu, ...**

*"Nik uste dut gu denetan adituak izatea nahi dutela, eta dena ezin da izan. Horrelako gauzak informatikako irakasleak azaldu beharko lituzke akaso. Erakustea dauka zer den ordenagailua, zertarako balio duen eta zein diren arriskuak". (Heldutasun teknologiko ertaineko Gipuzkoako ikastetxeetako irakasleak)*

- Falta botatzen dituztela ikastetxeen aldetik **jarraibide argiak**, ondo jakiteko zer egin behar duten eta nola.

*"Nik ez ditut argi jarraibideak. Inork ez dizkit eman beharreko urratsak azaldu. Ez dakit zein diren Eusko Jaurlaritzak ezarri nahi dituen arauak" (Heldutasun teknologiko baxuko Bizkaiko ikastetxeetako irakasleak)*



**LHko seigarren mailako eta DBHko lehenengo mailako irakasleen rola pribatutasunaren eta datu personalak babestearen aurrean, IKTen erabileraren testuinguruan.**

### 3. Zein izan behar da irakasleen rola IKTekiko eta pribatutasunarekiko?

- Sentsibilizazio eta prebentzioaren inguruan ardaztutako diskurtsoak **beste eragile batzuen bidez indartu behar dela** uste dute, LHko 6. mailako eta DBHko 1. mailako ikasleengan **eragin indar handiagoa** duten eragileekin.

facebook



*"Irtenbidearen zati bat da polizia etortzea hitzaldi bat ematera, ikasleak konturatu daitezten; tutoreak ematen badu, pentsatzen dute ahobero bat dela, eta ez dira egoeraz benetan jabetzen". (Heldutasun teknologiko ertaineko Arabako ikastetxeetako irakasleak)*

*"Deustuko neska batzuk etortzen dira eta sare sozialei eta datu babesari buruzko hitzaldi bat ematen diete. Oso dinamika hurbila erabiltzen dute, eta ikasleek parte hartzen dute". (Heldutasun teknologiko baxuko Arabako zuzendariak)*

- Azkenik, azpimarratu behar da **heldutasun teknologiko handiagoa duten ikastetxeak aurrerago daudela** bide honetan, hau da, irakasleak, batez ere aholkulariak, eta ez hainbeste kontrolatzaileak, izateko bidean. Horren adierazgarri da ikastetxe horietan aztertzen ari direla **ikastetxera mugikorra eramateko debekua bertan behera uztea**, eta mugikorra **ohiko baliabide pedagogiko moduan erabiltzea**.

*"Ikasleek mugikorrak ekartzearen aldeko gara, horretan urratsak ematearen aldeko. Esperimentatzeko da. Beldur apurtxo bat ematen du, hasieran bezala, denak ordenagailua erabiltzen hasi zirenean eta guk ez genekienean Interneten jolasean ibiliko ziren edo zer. Baina kontua da ondo kudeatzea. Lanpetuta badaude, ez dute hainbeste jolastuko". (Heldutasun teknologiko altuko Gipuzkoako irakasleak)*



*"Gu ez gara poliziak, ez dakigu nola izan eta alferrik izango litzateke. Hori kontrolatzea ezinezkoa da. Emaitzak hobekien dira hitz egiten bada eta konbentzitzen saiatuz gero". (Heldutasun teknologiko altuko Bizkaiko ikastetxeetako irakasleak)*



**Datuak Babesteko**  
Euskal Bulegoa  
Agencia Vasca de  
**Protección de Datos**

Hezkuntza Komunitateak Pribatutasunaz eta IKTei  
buruz duen pertzepzioari buruzko Azterketa  
Kualitatiboa



**Kualitate**  
LANTALDEA

# 6. Kapituluua

## Zer eskatzen diote Datuak Babesteko Euskal Bulegoari?



**Datuak Babesteko**  
Euskal Bulegoa  
Agencia Vasca de  
**Protección de Datos**



1. Datuak Babesteko Bulegoa ezagutzen dute?

2. Zer eskatzen diote Bulegoari?



## Zer eskatzen diote Datuak Babesteko Euskal Bulegoari?

### 1. Datuak Babesteko Bulegoa ezagutzen

- Salbuespenak salbuespen, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa **ia inork ez du ezagutzen ikastetxeetan**, berdin dio zuzendariak izan, irakasleak izan ala Euskadiko guraso elkarteen federazioetakoak izan. **Ez dakite Agentziaren eginbeharrak zein diren**, eta batez ere **kontrol organotzat** daukate. Beraz, ez dute erreferentetzat hartzen, pribatutasunari eta datu babesari lotutako gaiak konpontzeko orduan.

*"Guri ere ez zaigu bururatu Agentziara jotzea, eta Agentziari ere ez guregana etortzea. Horregatik diotsut ez dakidala zer eskain dezakeen. Ez ditugu ezagutzen. Kontrol organoa dela dakigu, nola edo hala esateagatik; gure erakundea behartuta dago datu babesari betetzen, eta horren arabera jokatzeko dugu. (Guraso elkarteetako federazioak)*



*"Datuak Babesteko Euskal Bulegotik, Eusko Jaurlaritzatik, datorren informazioari harpidetuta nago. Informazioa bidaltzen didate, ikastetxerako berriaz eskatu nuelako" (Heldutasun teknologiko altuko Gipuzkoako ikastetxeetako zuzendariak)*

*"Begira, hauek dira Datuak Babesteko Euskal Bulegoak finkatu dizkigun fitxategiak. Ulertzen ez dudana da zergatik jarri behar dugun harremanetan Datuak Babesteko Madrilgo Agentziarekin eta ez hemengoarekin. Hemengoarekin ez dugu harremanik izan". (Heldutasun teknologiko baxuko Arabako ikastetxeetako zuzendariak)*



## Zer eskatzen diote Datuak Babesteko Euskal Bulegoari?

### 1. Datuak Babesteko Bulegoa ezagutzen

- Ikastetxeek zalantzaren bat dutenean, Hezkuntza Saileko Lege Aholkularitzara jo behar izaten dute; eta guraso elkarteen federazioek IKTen erabilera seguruarekin eta egokiarekin zer ikusia duten ikastaroak edo lantegiak antolatu nahi dituztenean, **enpresa espezializatuetara jotzen dute, Berritzeguneetara eta Ertzaintzara ere bai.**



"Nik uste dut zuzendariak zalantzak dituztenean, Hezkuntza Saileko lege aholkularitzarekin edo ikuskaritzarekin jarriko dela harremanetan. Nik hitz egin izan dut lege aholkularitzarekin halako gaiei buruz, jakiteko zien dokumentu eta zein argazki argitaratu ahal genituen..." (Heldutasun teknologiko altuko Gipuzkoako ikastetxeetako irakasleak)

"Politika bat dago gaiari buruzko araudi guztiarentzat. Ikaragarria da. Dena eguneratzen ari gara enpresa batek lagunduta. Araudia ahal duzun neurrian menperatzen duzu. Aholkularitza ematen dion enpresarik ez duen ikastetxea... larri ibili behar da" (Heldutasun teknologiko baxuko Arabako ikastetxeetako zuzendariak)

"Gai hauetako adituak daude, eta gurekin lan egin izan dute. Batzuetan berritzeguneetako langileak izan dira, beste batzuetan gai hauei buruzko prestakuntza ematen duten enpresak edo organizazioak. Gurekin harremanetan jartzen dira, eta egokiak bada, prestakuntza egiten dugu" (Guraso elkarteen federazioak)



## Zer eskatzen diote Datuak Babesteko Euskal Bulegoari?

### 2. Zer eskatzen diote Bulegoari?

- Bat datoz eta ia gauza bera **eskatzen dute** zuzendariek, irakasleek eta guraso elkarteek:
  - **Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarekin lana koordinatua egitea**, ikastetxeei **jarraibide argiak eta homogeneousak** eman ahal izateko, IKTekin, pribatutasunarekin eta datu babesarekin lotutako gaiei modu planifikatuan eta helburu garbiekin heltzeko.



*"Lehengo eskaera da Hezkuntza Sailarekin harremanetan egon daitezela. Mugi daitezela eta maila horretako zerbait eratu, berritzeguneen bidez, zonaldeka edo ..."* (Heldutasun teknologiko altuko Gipuzkoako ikastetxeetako zuzendariak)

*"Duela gutxi Euskadiko Familiaren Kontseiluan egon ginen eta han esan zuten datu babesari buruzko prestakuntza egin nahi zutela guraso elkarten federazioentzat. Guk esan genien ea ez zekiten Datuak Babesteko Euskal Bulegoak egiten zuenik hori, Jaurilaritza handia dela eta agian ez dutela elkar ezagutzen"* (Guraso elkarten federazioak)



## Zer eskatzen diote Datuak Babesteko Euskal Bulegoari?

### 2. Zer eskatzen diote Bulegoari?

➤ Eskatzen dute **material pedagogikoa** egiteko, IKTak behar bezala erabiltzeari buruzko sentsibilizazio jardueretarako. Material honako baldintzak izan behar ditu:

- Materialak **ez du alarmista izan behar.**

"Nik ez nieke sekula galdetuko zein diren Facebooken ikusten dituzten bost arriskuak, aldez aurretik jakin gabe zein diren arrisku erakargarrienak. IKT berriak ez dira arriskutsuak. Arrisku batzuk dakarte, baina berez ez dira arriskugarriak".

(Heldutasun teknologiko altuko Bizkaiko ikastetxeetako irakasleak)

- Ondo egokituta egon behar du ikastetxeetako **benetako egunerokotasunera.**

"Dekalogo bat egitea jarraibideekin, labur-laburra, begi kolpe batez ikusi eta ulertzeko moduan, eta gelako iragarki-oholean jarri, denon artean irakurtzeko"

(Heldutasun teknologiko ertaineko Arabako ikastetxeetako irakasleak)

- Identifika ditzala **eskolaren testuinguruan gehien gerta daitezken arrisku egoerak** edo eragin handiena izan dezaketenak behintzat.

"Argi adieraztea daukate, egoerak antzematen erakustea, jarraipenak nola egin eta egoerak nola bideratu azaltzea, benetan konponezina bihurtu arretik"

(Heldutasun teknologiko baxuko Bizkaiko ikastetxeetako irakasleak)

- Arriskuak kudeatzeko **aholkuak** ere ematea.

"Esan dezatela datu pertsonalen kudeaketak nondik jo behar duen praktikan, bai ikastetxeei dagokienez bai herritarrei dagokienez. Argitzea daukate zein diren ikasleen eskubideak, datu babesaren arloan dauden arriskuak eta gainontzekoak".

(Guraso elkarten federazioak)





## Zer eskatzen diote Datuak Babesteko Euskal Bulegoari?

### 2. Zer eskatzen diote Bulegoari?

- Antolatzea **gurasoentzako sentsibilizazio ekimenak**, gursoei azaltzeko seme-alabak IKTen arloan ere hezi behar dituztela eta oso garrantzitsua dela seme-alaben pribatutasuna eta datu pertsonalak babestea, bai eta besteenak ere.

*"Informazioa xehe-xehe eginda ematea, zehatz-zehatz. Ikastetxeetan egoten diren 4 arazo nagusienak antzematea daukate eta kanpaina bat egin" (Heldutasun teknologiko altuko Gipuzkoako ikastetxeetako irakasleak)*

- Zehatzago esanda, gurasoen elkarteen kasuan **federazioek ere prestakuntza eskatzen dute, gero haiek ere prestakuntza saioak egin ahal izateko**, bai ikasleei bai gurasoei zuzenduta, prebentzioari begirako sentsibilizazio lana egiteko.

*"Familiei eta ikastetxeei prestakuntza eta informazioa ematea, baina ez bakarrik posta elektronikoan legezko oharra jartzeko... Informazioa baliokoa izatea ikasleei azalpenak emateko prebentzio arloan, eta ez gaitezen egon txinpartak salto egin arte zain" (Guraso elkarteen federazioak)*





## Zer eskatzen diote Datuak Babesteko Euskal Bulegoari?

### 2. Zer eskatzen diote Bulegoari?

- Azkenik, merezi du **azpimarratzea ikastetxeak eta guraso elkarten federazioak prest daudela** Datuak Babesteko Euskal Bulegoren esku jartzeko haien azpiegiturak eta harreman sarea, sentsibilizazioaren esparruko ekimenak garatzeko bada.

*"Eusko Jaurlaritzak eskola erabili nahi badu, gazteak eta gurasoak bertan daudelako, erabil ditzala, bereak dira eta" (Heldutasun teknologiko ertaineko Bizkaiko ikastetxeetako irakasleak)*



*"Gu materiala banatzeaz arduratu ahal gara, azken finean, harreman sareak ditugu; izena eta irudia ere bai; guraso elkarten federazioak gutaz fidatzen dira esaten diegunean garrantzitsua dela. Transmisio-uhala bezala erabil gaitzate. Prestakuntza saioak egiteko lokalak ere baditugu" (Guraso elkarten federazioak)*

*"Guk aldizkari digital bat dugu, astero ateratzen dena, eta zenbaitetan atal bat dago hainbat gairi buruzko berriak, bideoak, sentsibilizazio-kanpainak jartzeko. Inoiz WhatsApparekin lotutako gaiak ere jarri ditugu eta eragina izan dute" (Guraso elkarten federazioak)*



**Datuak Babesteko**  
Euskal Bulegoa  
Agencia Vasca de  
Protección de Datos


Hezkuntza Komunitateak Pribatutasunaz eta IKTei  
buruz duen pertzepzioari buruzko Azterketa  
Kualitatiboa



**Kualitate**  
LANTALDEA

# 7. Kapituluua

## Azken gogoetak





## Azken gogoetak

### Ikasleek IKTak erabiltzen dituzte eskolako testuingurutik kanpo

IKTak orokorrean eta Interneteko konexioa duten mugikorrek bereziki 11-13 urte bitarteko ikasleen gizarteratze prozesuaren funtsezko osagai bihurtu dira. Harreman sozialek eta berdinaren taldearekiko elkarreraginak bultzatu dute tresnon erabilera.



### Ikasleen jarrera pribatutasuna eta datu personalen babesaren aurrean, IKTen erabileraren testuinguruan.

Nahiz eta informazioa eduki, esan daiteke, hein handi batean, pribatutasunaren eta datu babesaren kontzeptuak ez direla gauzatzen modu aproposan lehen hezkuntzako 6. mailako eta bigarren hezkuntzako 1. mailako ikasleentzat.



### Gurasoak zenbateraino dauden arduratuta seme-alaben pribatutasunaz eta datu personalen babesaz, IKTen erabileraren testuinguruan.

Era berean, gurasoek ere ez dituzte ondo barneratu IKTen erabilerak seme-alabengan izan ditzakeen ondorioak, pribatutasunari dagokionez. Horregatik, gurasoen jarrera aldatokorra da: batzuetan sustatu egiten dute nolabait mugikorrek garaia baino lehenago erabiltzea, beste batzuetan kezkatuta ikusten dira, baina, benetan arduratzen dira arazoak gehiago ala gutxiago zuzenean ukitzen dituzenean.





## Azken gogoetak

**Ikastetxeen jarduerak pribatutasuna eta datu pertsonalak babesteko.**



Gehienetan **ikastetxeek** modu bera dute IKT-pribatutasuna binomio berri, konplexu eta aldakorrari aurre egiteko: **zerbait gertatzen denean erreakzionatzen dute** (gertatzen diren gauza larrienak ziberjazarpenarekin eta irudien grabazioarekin eta zabalkundearekin zerikusia daukate). Eta uste dute **komenigarria dela sentsibilizazio eta prebentzio ekimen unibokoak eta sendoak finkatzea, eta ikastetxeetako curriculumean behar bezala txertatuta.**

**LHko seigarren mailako eta DBHko lehenengo mailako irakasleen rola pribatutasunaren eta datu pertsonalak babestearen aurrean, IKTen erabileraren testuinguruan.**

Esan behar da **IKTak gelan poliki-poliki sartuz joan diren garaian** irakasleen rola izan dela batez ere zaintzaz eta kontrolaz arduratzea, IKTeak erabiltzean pribatutasunerako eta datu pertsonalen babeserako eskubidea babesten dela bermatzeko. Baina, gehienek uste dute hori ez dela haien rola, **aholkularitza eta kontzientziario rola** baizik; nahiz eta, rol hori benetan gauzatzeko, batetik, **gurasoen aldetik konpromiso handiagoa behar den seme-alabak hobeto hezteko esparru honetan.** Eta bestetik, **hainbat oztopo gainditu behar** diren, batez ere, irakasleen prestakuntzarekin zer ikusia dutenak, rola betetzeko **jarraibide faltarekin** zer ikusia dutena eta irakasleen kolektiboak esleituta dituen **ardura pilaketari dagozkionak.**





## Azken gogoetak

### Zer eskatzen diote Datuak Babesteko Euskal Bulegoari?

Hezkuntza komunitateak uste du **azterketa honen emaitzak aukera bat ematen dutela Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren arteko ekintza koordinatu bat gauzatzeko, eta horren bidez jarraibide argi eta homogeneoak eskuratzeko, eta lotzeko ikasleek pribatutasunerako eta datu pertsonalen babeserako eskubidearekin errespetuz jokatzea**. Ahala bada, honako hauek ere eskatzen dituzte:

- **Material pedagogikoa, ikastetxeen benetako egunerokotasunarekin bat datorrena.**
- **Ekimenak gauzatzea gurasoak sentsibilizatzeko.**
- **Guraso elkarten federazioarentzako prestakuntza.**

